ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITUKO DEN ZERBITZUAK KUDEATZEKO KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUENA

AURKIBIDEA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK 4
I. KAPITULUA. Araubide juridikoa 4
1. klausula. Araubide juridikoa 4
II. KAPITULUA. Kontratua....5
2. klausula. Kontratuaren xedea eta beharra. 5
3. klausula. Balio zenbatetsia. 5
4. klausula. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren prezioa. 5
5. klausula. Gauzatzeko epea eta lekua. 6
6. klausula. Kontratuaren luzapena. 6
7. Klausula. Gauzatzeko baldintza bereziak. 6
8. klausula. Prezioak berrikustea. 7
9. klausula. Kontratatzeko gaitasuna. 7
10. klausula. Sailkapena eta kaudimena. 8
11. klausula. Kaudimena kanpoko baliabideekin integratzea. 8
12. klausula. Kaudimen-baldintzak zehaztea. 9
14. klausula. Prozedura. 9
15. klausula. Publizitatea. 9
16. klausula. Esleitzeko irizpideak. 10
17. klausula. Kontratazio-organoa. 11
18. klausula. Kontratuaren arduraduna. 11
VI. KAPITULUA. Bermea. 11
19. klausula. Behin betiko bermea. 11
20. klausula. Behin betiko bermea itzultzea eta ezereztea. 12
II. TITULUA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA. 12
I. KAPITULUA. Proposamenak. 12
21. Klausula. Proposamenak aurkeztea. 12
22. klausula. Baliabide elektronikoak. 12
23. klausula. Proposamenen forma eta edukia. 13
24. klausula. Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialak. 15
25. klausula. Aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa, balorazioa eta proposamenak irekitzea. 16
II. KAPITULUA. Esleipen-proposamena, esleipena eta perfekzioa eta formalizazioa. 16
26. klausula. Esleipen-proposamenaren ondorioak. Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia eta Urola Kostako Udal Elkarteak esleipen-prozeduran atzera egitea. 16
27. klausula. Kontratua esleitzea. 17
28. klausula. Kontratua gauzatzea eta formalizatzea. 20
III. TITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA. 21
I. KAPITULUA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak. 21
Lehehengo atala. Kontratistari egin beharreko ordainketak. 21

29. klausula. Balorazioak eta ordainketak. 21
Bigarren atala. Kontratistari egin beharreko eskakizunak. 22
30. klausula. Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak. 22
Hirugarren atala. Lan- eta gizarte-xedapenak eta gardentasun-xedapenak 22
31. klausula. Lan-, gizarte eta gardentasun-betebeharrak. 22
32. klausula. Lan-kontratuetako subrogazio-baldintzei buruzko informazioa. 22
33 . klausula. Konfidentzialtasunaren betebeharra. 23
34. klausula. Datu pertsonalen babesa. 23
35. klausula. Aseguruak. 24
36. klausula. Kontratistaren erantzukizuna kalte-galerengatik. 24
37. klausula. Kontratua lagatzea. 25
38. klausula. Azpikontratazioa. 25
III. KAPITULUA. Kontratua gauzatzea. Lehen atala. Arriskua eta mentura. 27
39. klausula. Arriskua eta mentura. 27
Bigarren atala. Kontratua betetzea. 27
40. klausula. Lan-programa. 27
41. klausula. Lan akastunak edo gaizki egindakoak. 27
42. klausula. Akatsak eta hutsuneak zuzentzea. 27
43. klausula. Obrak gauzatzean izandako desbideratzeengatiko kalte-ordainak eta proiektuan izandako errakuntza edo akatsengatiko erantzukizuna. 28
44. klausula. Epea betetzea eta kontratu-betebeharrak ez betetzeagatiko zigorrak. 29
Bosgarren atala. Kontratua aldatzea eta etetea. 30
45. klausula. Kontratua aldatzea. 30
46. klausula. Kontratua etetea. 30
IV. KAPITULUA. Kontratua azkentzea. 30
Lehehengo atala. Kontratua suntsiaraztea. 31
47. klausula. Kontratua suntsiaraztea. 31
Bigarren atala. Zerbitzuak ematea. 32
48. klausula. Aurkezteko modua. 32
49. klausula. Zerbitzuak ematea eta lanak entregatzea. 32
50. klausula. Harrera eta likidazioa. 34
51. klausula. Lanen jabetza. 34
Hirugarren atala. Berme-epea 35
52. klausula. Berme-epea 35
53. klausula. Jurisdikzio eskuduna. 36

ERANSKINAK:

I. ERANSKINA: KARATULA: KONTRATUAREN EZAUGARRIAK. (IKUS FITXATEGI BEREIZIA).

II. ERANSKINA: KONTRATAZIO-AGIRI EUROPAR BAKARRAREN EREDUA (KAEB).

III. ERANSKINA: (Aukerako aurkezpena) ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALA DELA ZEHAZTEKO DOKUMENTU-EREDUA.

IV. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK TRATATZEKO BAIMENA ETA DATUAK TRATATZEKO KONTRATUA SINATZEKO KONPROMISOA.

V. ERANSKINA: 2022IKIE0011 ESPEDIENTE-ZENBAKIA DUEN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEA.

VI. ERANSKINA: ENPRESENTZAKO BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITUKO DEN ZERBITZUAK KUDEATZEKO KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUENA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. Araubide juridikoa

1. klausula. Araubide juridikoa

Kontratu hau administratiboa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (9/2017, azaroaren 8koa) 17. eta 25.1 artikuluek xedatutakoaren arabera (aurrerantzean SPKL); Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira. Kontratua honako hauen arabera arautuko da:

a) Klausula partikularreko agiri honetako klausulak, agiriaren osagaia den karatularen zehaztapenen arabera.
b) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea (9/2017, azaroaren 8koa), kontratua esleitzeko prozeduraren deialdia argitaratzeko unean indarrean dagoen bertsioan (SPKL).
c) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, urriaren 30eko 30/2007 Legearen (Sektore Publikoko Kontratuen Legea) atal batzuk garatzen dituena, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.
d) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO) onartzen duena, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.
e) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985, apirilaren 2koa).
f) Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren aurka ez doan heinean.
g) Horien osagarri, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Nolanahi ere, lehen aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLren aurka ez doan guztian aplikatuko dira.

Bi agiriak kontratuzkoak izango dira eta kontratua formalizatzeko ekitaldian sinatu beharko dira, esleipenduna ados dagoela adierazteko. Klausula-agiri hau eta gainerako kontratu-dokumentuak bat ez badatoz, klausula-agiri honek izango du lehentasuna.

Kontratuaren klausulen, gainerako kontratu-agirien eta hitzartutakoa gauzatzean aplikatu beharreko jarraibideen edo arauen berri ez izateak ez du esleipenduna klausula horiek betetzeko betebeharretatik salbuesten. Eskaintza aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, salbuespenik edo erreparorik gabe.

II. KAPITULUA. Kontratua.

2. klausula. Kontratuaren xedea eta beharra.

Klausula-agiri honetan aipatzen den kontratuaren xedea da **I. eranskineko 1. atalean** deskribatutako eta baldintza tekniko partikularren agirian zehaztutako zerbitzuak gauzatzea. Bertan, kontuan hartu beharreko alderdi guztiak zehazten dira, bai eta, hala badagokio, izapidetu daitezkeen aldaketak ere. Atal berean, halaber, kontratuaren bidez beteko diren premiak aipatzen dira.

1. eranskineko 1. atalean hala adierazten bada, loteka lizitatzeko aukera egongo da. Horiek esleitzeko mugak, hala badagokio, **I. eranskinean** adieraziko dira, bertan adierazitako irizpideen arabera. Klausula-agiri honetan kontratuari edo esleipendunari buruz egiten diren aipamen guztiak kontratuaren xedea banatzen den lote bakoitzari egiten zaizkiola ulertuko da.

SPKLren 99.3 artikuluarekin bat etorriz, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren xedea lotetan ez banatzeko, behar bezala justifikatu beharko diren arrazoi baliozkoak daudenean. Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa klausula-agiri honen **I. eranskineko 1. atalean** adieraziko da.

1. atalean hala adierazten bada, bertan adierazitako erakundeentzat gordeko da partaidetza, kontratu osoarena edo loteka, **I. eranskinean** adierazitakoaren arabera.

3. klausula. Balio zenbatetsia.

Kontratu honen balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, klausula-agiri honen **I. eranskineko 4. atalean** adierazitako zenbatekoa da.

Kontratazio-organoak balio zenbatetsia kalkulatzeko aplikatzen duen kalkulu-metodoa I. eranskineko 4. atalean agertzen dena izango da.

4. klausula. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren prezioa.

Kontratuek prezio zehatza izango dute beti, eta eurotan adierazi beharko da.

Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua klausula-agiri honen **I. eranskineko 5. atalean** adierazitako zenbatekoa da. SPKLren 100. eta 309. artikuluetan xedatutakoaren arabera egin da. Kalkulu horretan edozein motatako zergak sartzen dira.

Nolanahi ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa partida independente gisa adieraziko da.

Kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da. Kontratuaren prezioan sartzen dira aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanonak, bai eta klausula-agirian jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere.

4.1 Kontratuaren prezioa oroharreko prezioaren bidez zehaztea

Kontratuaren prezioa oroharreko prezioaren bidez zehazten den kontratuetan, kontratuaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da, eta ezin izango du inola ere gainditu **I. eranskineko 5. atalean** ageri den lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe).

4.2 Kontratuaren prezioa prezio unitarioen bidez zehaztea

Kontratuaren prezioa prestazioaren osagaiei, gauzatze- edo prestazio-unitateei edo denbora-unitateei dagozkien prezio unitarioen bidez zehazten denean:

a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez adierazten bada: esleipendunak eskainitako prezio unitarioa unitate-kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da prezioa.
b) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez adierazten ez bada:
   i) Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.
   ii) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Aurrekontu hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren berdina izan daiteke, edo, esleipendunak lizitazioaren prezio unitarioen murrizketa eskaini badu, kontratazio-organoak zehaztutako proportzioan murriztu ahal izango da.

5. klausula. Gauzatzeko epea eta lekua.

Iraupen-epea **I. eranskineko 8. atalean** agertzen dena izango da, eta kontratua formalizatzen denetik edo kontratu-dokumentuan ezarritako egunetik hasiko da kontatzen.
Kontratua klausula-agiri honen **I. eranskineko 8. atalean** adierazitako lekuan gauzatuko da.

6. klausula. Kontratuaren luzapena.

Kontratazio-organoak luzatu ahal izango du kontratua, eta kontratistak nahitaez luzatu beharko du, baldin eta kontratuaren iraupen-epea bukatu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bada. Jakinarazpen hori emateko betebeharretik salbuetsita daude bi hilabete baino gutxiagoko iraupena duten kontratuak, betiere SPKLren 29. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz.

Inola ere ezin ezingo da luzapenik egin alderdien isilbidezko adostasunaren bidez.

SPKLren 29. artikuluko 2. apartatuan ezarritako kontratuaren luzapena ez da nahitaezkoa izango kontratistarentzat, kontratuan SPKLren 198.6 artikuluan ezarritako suntsiarazpen-arrazoia gertatzen bada, Urola Kostako Udal Elkartea prezioa ordaintzen sei hilabete baino gehiago atzeratu delako.

Hasieran eratutako behin betiko bermea luzapen-aldiari aplikatu ahal izango zaio, haren zenbatekoa egokitu beharrik gabe, luzapenarekin batera kontratua aldatzea erabakitzen ez bada behintzat.

Kontratu hau luzatzeko edo ez luzatzeko aukera **klausula-agiriaren I. eranskineko 8. atalean** dago aurreikusita.

Hala ere, SPKLren 29.4 artikuluarekin bat etorriz, kontratu bat mugaeguneratzean kontratistak egin beharreko prestazioaren jarraipena bermatzen duen kontratu berria formalizatu ez bada, esleipen-prozeduran kontratazio-organoak aurreikusi ezin dituen gertakarien eraginez sortutako gorabeheren ondorioz, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak badaude, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da kontratu berria gauzatzen hasi arte. Nolanahi ere, luzapen hori gehienez ere bederatzi hilabetekoa izango da, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, baldin eta kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

Kasu horretan, luzapen hori aurreikusteko modukoa ez denez, eta haren aplikazioa ez denez kontratazio-organoaren borondatearen ondorio, ez da kontuan hartuko balio zenbatetsia finkatzeko, eta ez da aplikatuko arestian aipatutako aurreabisu-betebeharra.

Luzapenak kontratua amaitu aurretik onartu beharko dira.

7. Klausula. Gauzatzeko baldintza bereziak.

Kontratazio-organoek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte kontratua gauzatzeari dagokionez, baldin eta kontratuaren xedeari lotuta badaude, SPKLren 145. artikuluaren zentzuan, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak eta Europako Erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak badira.

Kontratu hau gauzatzeko baldintza bereziak klausula-agiri honen **I. eranskineko 20. atalean** adierazten dira.

Aurrekoez gain, gauzatze-baldintza berezi hauek ezartzen dira, oro har:

7.1. Sozialak edo enpleguari buruzkoak:

a) Lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea.
b) Kontratuari esleitutako langileen lan-baldintzei buruzko informazioa emateko betebeharra betetzea.
c) Kontratua gauzatzen den bitartean, langileei dagokien lanbide-kategoriaren arabera aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak ezartzen dituen soldatak ordaintzea, baina ordaindu beharreko soldatak inola ere ez dira izango hitzarmen kolektiboan ezarritakoak baino txikiagoak.
d) Kontratua gauzatzetik eratorritako datu guztiei gardentasun instituzionala ematea.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi horiek betetzen ez badira, zigorrak ezarri beharko dira klausula-agiri honen **I. eranskineko 27. atalean**, edo, bestela, baldintza horiei funtsezko kontratu-betebeharraren izaera eman beharko zaie, SPKLren 211. artikuluko f) letran ezarritako ondorioetarako.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak eskatuko zaizkie, halaber, kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

8. klausula. Prezioak berrikustea.

Prezioak berrikustean, klausula-agiri honen **I. eranskineko 6. atalean** zehaztutakoa beteko da, hori guztia SPKLren 103. artikuluarekin bat etorriz.

III. KAPITULUA. Lizitatzailea.

9. klausula. Kontratatzeko gaitasuna.

Kontratu hau esleitzeko aukera izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek edo atzerritarrek, banaka edo aldi baterako enpresa-elkartean, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa egiaztatzen badute, edo behar bezala sailkatuta badaude, klausula-agiri honen **I. eranskineko 11. atalean** ezarritakoarekin bat etorriz.

Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, 69. artikuluko 8. apartatuan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio haien osaera aldatzeko, bai eta lizitazioak irauten duen bitartean aldaketak egiteko ere.

Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresen bat-egiteen kasuetan, indarrean dagoen kontratuak erakunde bereganatzailearekin edo bat-egitearen ondorioz sortzen denarekin jarraituko du, eta kontratutik eratorritako eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edo horien jarduera-adarren zatiketa, ekarpena edo eskualdaketa gertatzen denean, kontratuak aurrera jarraituko du kontratua esleitu zaion erakundearekin, eta kontratu horren ondoriozko eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, baldin eta esleipenean eskatzen diren gaitasun-baldintzak, kontratatzeko debekurik eza eta kaudimena betetzen baditu, edo aipatutako eragiketen sozietate onuradunek eta, irauten badu, ondaretik, enpresetatik edo adar bereizietatik datorren sozietateak haiekin kontratua gauzatzeko erantzukizun solidarioa izaten badute. Subrogazioa egin ezin bada kontratua esleitu zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta esleipendunaren erruz suntsiarazten den kasutzat hartuko da ondorio guztietarako.

Ondorio horietarako, enpresak horren berri eman beharko dio kontratazio-organoari.

Pertsona juridiko bat kontratu baten esleipendun izan daiteke, baldin eta kontratu horren objektuko lanak pertsona juridiko horren jardueraren helburu, objektu eta arlokoak baldin badira, pertsona juridiko horren estatutu edo arau eratzaileen argitara.

Kontratistek, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute, klausula-agiriaren **I. eranskineko 13. atalean** ezarritakoarekin bat etorriz.

Erkidegoko enpresei edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuei eta Erkidegoz kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

10. klausula. Sailkapena eta kaudimena.

SPKLren 74. artikuluarekin bat etorriz, sektore publikoarekin kontratuak egiteko, enpresariek kontratazio-organoak zehaztutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta gaitasun profesional edo teknikoko gutxieneko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Baldintza horren ordez, sailkapenarena ezarri ahal izango da.

Zerbitzu-kontratuen kasuan, ez da eskatuko enpresaburuaren sailkapena. **I. eranskineko 11. atalean**, kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen tekniko eta profesionaleko gutxieneko irizpideak eta betekizunak ezarriko dira, bai Legearen 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako terminoetan, bai eska daitekeen sailkapen-talde edo -azpitaldearen eta gutxieneko kategoriaren terminoetan, betiere kontratuaren xedea indarrean dagoen sailkapen-talde edo -azpitalderen baten sailkapen-esparruan sartuta badago; horretarako, kontratuaren CPV kodea hartuko da kontuan.

Beraz, enpresaburuak bere kaudimena egiaztatu ahal izango du, kontratuari dagozkion sailkapen-talde edo -azpitaldeko sailkapenaren bidez edo **I. eranskineko 11. atalean** zehaztutako kaudimen-betekizun espezifikoak betetzen dituela egiaztatuz.

Era berean, SPKLren 92. artikuluak xedatzen du erregelamendu bidez salbuetsi ahal izango dela ekonomia- eta finantza-kaudimena edo gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzeko eskakizuna, muga jakin bat gainditzen ez duten kontratuen kasuan.

11. klausula. Kaudimena kanpoko baliabideekin integratzea.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango du, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratua gauzatzen den bitartean kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta baliatzen duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez duela.

Baldintza berberetan, SPKLren 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako elkarteetan elkartuta aurkezten diren enpresaburuek aldi baterako elkartearekin zerikusirik ez duten gaitasunetara jo ahal izango dute.

Beraz, lizitatzaileek egiaztatu ahal izango dituzte kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko betekizun espezifikoak, **I. eranskineko 11. atalean** jasotakoak, beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarrituta.

Sailkapena falta bada edo nahikoa ez bada, ezin izango da kaudimena kanpoko baliabideekin integratuz ordezkatu.

SPKLren 75.1 artikuluarekin bat etorriz, 90.1 e) artikuluan adierazten diren ikasketa- eta lanbide-tituluei buruzko irizpideei edo dagokion lanbide-esperientziari dagokienez, enpresek beste erakunde batzuen gaitasunetara jo ahal izango dute, baldin eta erakunde horiek gaitasun horiek beharrezkoak dituzten zerbitzuak emango badituzte.

Zerbitzu-kontratuetan, SPKLren 75.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere esleitzaileek eskatu ahal izango dute zati edo lan jakin batzuk, haien izaera berezia kontuan hartuta, lizitatzaileak berak zuzenean gauzatu ditzala, edo, enpresa-elkarte batek aurkeztutako eskaintzaren kasuan, elkarte horretako parte-hartzaile batek, betiere klausula-agirian hala aurreikusi bada.

12. klausula. Kaudimen-baldintzak zehaztea.

Zerbitzu-kontratuetan, pertsona juridikoei eskatu ahal izango zaie prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kuantifikazioa zehazteko, SPKLren 76.1 artikuluaren arabera.

Era beran, SPKLren 76. artikuluko 2. apartatuaren arabera, kontratazio-organoek lizitatzaileei eskatu ahal izango diete, beren kaudimena edo, hala badagokio, sailkapena egiaztatzeaz gain, konpromisoa har dezatela kontratua gauzatzeko behar beste giza baliabide edo baliabide material erabiltzeko edo atxikitzeko. Konpromiso horiek funtsezko kontratu-betebeharrak dira 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, edo zigorrak ezar daitezke 192.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, esleipendunak betetzen ez baditu.

Klausula-agiri honetako **I. eranskineko 12. atalean** ezartzen da kontratua gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta kualifikazioa eskatuko direla, bai eta kontratua gauzatzeko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa ere.

13. klausula. Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean eta EAEko Kontratisten Erregistro ofizialean inskribatzea.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro ofizialean inskribatuta egotearen ziurtagiriak egiaztatuko du, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak, haren izaerari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide- edo enpresa-gaikuntzari, ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta gaitasun tekniko edo profesionalari, sailkapenari eta inskribatutako gainerako inguruabarrei dagokienez, bai eta bertan jasota dauden kontratatzeko debekuak dauden edo ez dauden ere.

Halaber, Euskadiko Kontratisten Erregistro ofizialeko inskripzioak aurreko paragrafoan jasotako inguruabar berberak egiaztatuko ditu.

IV. KAPITULUA. Esleitzeko prozedura.

14. klausula. Prozedura.

SPKLren 131.2 eta 156. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipen-irizpide bakar bati edo hainbat esleipen-irizpideri jarraituz egingo da, klausula-agiri honen **I. eranskineko 10. atalean** xedatutakoaren arabera eta lege-testu horretan ezarritako baldintzen eta betekizunen arabera, SPKLren 145. eta 146. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

15. klausula. Publizitatea.

Kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Urola Kostako Udal Elkartearen kontratatzailearen profilera sartzeko, Udal Elkartearen webgunea erabiliko da: www.urolakosta.eus.

SPKLren 19. artikuluaren eta hurrengoen arabera kontratua erregulazio harmonizatuaren mende badago, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) ere argitaratuko da, SPKLren 135.1 artikuluaren arabera.

Klausula-agiri honen **I. eranskineko 33. atalean** agertzen den Urola Kostako Udal Elkarteko kontratatzailearen profilean, kontratuaren lizitazio-deialdiari buruzko informazioa emango da, administrazio-klausula partikularren agiriak eta dokumentazio osagarria barne, hala badagokio.

Eskaintza aurkezteko behar den dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez eskuratu ahal izango da, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik aurrera.

Lizitazio-prozeduran interesa dutenek klausula-agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatu ahal izango dute, klausula-agiri honen **I. eranskineko 3. atalean** ezarritako aurrerapenarekin.

16. klausula. Esleitzeko irizpideak.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabili behar diren irizpide objektiboak **1. klausularen 17. atalean** ezarritakoak dira, dagokien haztapenarekin edo, bestela, garrantziaren arabera handienetik txikienera.

Esleipen-prozedura zenbait fasetan antolatzen denean, esleipen-irizpide objektiboen artean, klausula horren atal berean zehazten dira, hala badagokio, lehenengo fasean baloratuko direnak. Horietako bakoitzean, gutxienez, adierazitako puntuazioa lortu beharko da, eskaintza erabakitze-fasean baloratu ahal izateko. Era berean, hala badagokio, atal honetan adieraziko dira zer parametro objektibok emango duten aukera eskaintza bat anormala dela identifikatzeko, eskaintza osoari dagozkionak.

Balio-judizio baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideek automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideei dagokiena baino haztapen handiagoa esleituta dutenean, irizpide horien balorazioa kontratuaren xedeko gaian adituak diren pertsonek osatutako batzorde bati edo erakunde tekniko espezializatu bati egokituko zaio. Batzordea, hala badagokio, gutxienez hiru kidek osatuko dute, eta kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuetakoak izan daitezke, baina inola ere ezingo dira kontratua proposatzen duen organoari atxikita egon, eskaintzak ebaluatu behar baititu organo horrek. **1. klausularen 17. atalean** ezartzen da batzordearen izendapena edo hura egiteko prozedura edo, hala badagokio, erakunde tekniko espezializatuaren izendapena, eta balio-judizio baten arabera kuantifikatuta dauden esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa ireki aurretik argitaratu beharko da.

1. klausularen 1. atalean eskaintza integratzaileak onartzen direnean, aldez aurretik konparaziozko ebaluazio bat egingo da, lizitatzaile jakin batek loteen konbinazio partikular baterako aurkeztutako eskaintzek, oro har, klausula-agirian lote horiei buruz ezarritako esleipen-irizpideak hobeto beteko lituzkeen zehazteko, kasuan kasuko lote bananduetarako aurkeztutako eskaintzek baino, banaka hartuta.

V. KAPITULUA. Kontratazio-organoa.

17. klausula. Kontratazio-organoa.

SPKLren 61. artikuluarekin bat etorriz, kontratazio-organoek, pertsona bakarrekoek zein kide anitzekoek, izango dute kontratazio-arloko sektore publikoko erakundeen ordezkaritza, baldin eta, legezko edo erregelamenduzko arau baten edo estatutu-xedapen baten arabera, beren izenean kontratuak egiteko ahalmena badute.

Kontratazio-organoek arlo horretako eskumenak eta ahalmenak eskuordetu edo deskontzentratu ahal izango dituzte, ahalordeak emateko aplikatu beharreko arauak eta formalitateak betez, sozietate-organoak direnean.

Kontratu honetarako, kontratazio-organoa klausula-agiriaren **I. eranskineko 2. atalean** adierazitakoa izango da.

18. klausula. Kontratuaren arduraduna.

Kontratazio-organoak izendatzen duen kontratuaren arduradunari dagokio, SPKLren 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua gauzatzen dela gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, kontratazio-organoak esleitzen dizkion eskumenen esparruan.
Gainera, kontratuaren arduradunaren eginkizunak dira:

a) Prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren jarraibideak idatziz ematea.
b) Prestazioa behar bezala gauzatu eta jaso dela egiaztatzea.
c) Kontratistak kontratuaren arabera bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela gainbegiratzea eta egiaztatzea, kontratazio-organoari ez-betetzeen berri ematea, eta, hala badagokio, kontratua suntsiaraztea edo zigorrak ezartzea proposatzea.
d) Kontratua gauzatzeari adskribatu zitzaizkion giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.
e) Egin beharreko aldaketak proposatzea.
f) Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen lan-baldintzei buruzko datuak eskatzea kontratistari.
g) Kontratistari dokumentazio gehigarria eskatzea, kontratua indarrean dagoen bitartean hirugarren erakundeen kaudimena eta/edo baliabideak dituela eta kontratua esleitzeko prozeduran parte hartzeko oinarritzat hartu zituen kaudimena eta/edo baliabideak dituela egiaztatzeko.
h) Kontratistak azpikontratistei eta/edo hornitzaileei ordaintzeko betebeharra betetzen duela egiaztatzea.
i) Txostena egitea, non zehaztuko baita, kontratua gauzatzean atzerapenik izanez gero, gertatutako atzerapena kontratistari egotz dakiokeen.
j) Kontratistari eskatzea aktaren bidez egiazta dezala datu pertsonalak zituzten euskarri guztiak itzuli dituela edo datu pertsonalak zituzten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu dituela, kontratua gauzatzen amaitu ondoren.

Kontratuaren arduradunaren eta kontratazio-organoaren artean desadostasunik badago kontratua betetzeari eta gauzatzeari buruz, kontratazio-organoaren irizpidea nagusituko da.

VI. KAPITULUA. Bermea.

19. klausula. Behin betiko bermea.

145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du kontratazio-organoaren eskura. Berme horren zenbatekoa lizitatzaileak

eskainitako azken prezioaren 100eko 5ekoa izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, edo, hala badagokio, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren 100eko 5ekoa, klausula-agiri honen **I. eranskineko 14. atalean** ezarritakoaren arabera. Bermea eratu dela zazpi egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo die. Kontzeptu horien barruan sartzen da kontratistak ez betetzea kontratuaren xede diren prestazioak behar bezala ez gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, SPKLren 196. artikuluan aurreikusitakoa.

Behin betiko bermea SPKLren I. liburuko IV. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera eratuko da, SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan.

Kontratua aldatzearen ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada, bermea doitu egingo da 15 egun naturaleko epean, aldatzeko erabakia enpresaburuari jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita, aldaketaren ondoriozko kontratuaren prezioarekiko proportzio egokia izan dezan; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da. Epe berean, zigorrak edo kalte-ordainak ordaintzen diren egunetik zenbatzen hasita, esleipendunak bermea birjarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, eta, bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da. Ondorio horietarako, I. liburuko III. tituluko II. kapituluan adierazitakoaren arabera prezioak berrikustearen ondorioz gertatzen diren prezio-aldaketak ez dira kontuan hartuko.

Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, klausula-agiri honen **I. eranskineko 15. atalean** xedatutakoaren arabera.

20. klausula. Behin betiko bermea itzultzea eta ezereztea.

Kontratuaren likidazioa onartu ondoren, behin betiko bermearen gainean gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago, eta klausula-agiri honen **I. eranskineko 29. atalean** zehaztutako zerbitzuen berme-epea igaro bada, likidazioa itzultzeko erabakia hartuko da.

Harrera partzialak ezarri badira, bermearen zati bat ezerezteari buruz klausula-agiri honen **I. eranskineko 8. atalean** adierazitakoa beteko da.

II. TITULUA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA.

I. KAPITULUA. Proposamenak.

21. Klausula. Proposamenak aurkeztea.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, ezin izango du inolako proposamenik izenpetu aldi baterako enpresa-elkartean beste enpresaburu batzuekin, banaka egin badu edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan badago. Arau horiek hautsiz gero, ez dira onartuko hark sinatutako proposamen guztiak.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen dituela kontratua arautzen duten agirietan aurreikusitako klausula edo baldintza guztiak, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Aldaerei dagokienez, klausula-agiri honen **I. eranskineko 18. atalean** xedatutakoa beteko da.

22. klausula. Baliabide elektronikoak.

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA izeneko aplikazioaren bitartez. Aplikazio hori KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN plataforman dago, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMAN, eta klausula-agiri honen **I. eranskineko 33. atalean** xedatutakoa beteko da.

22.1- Erabiltzeko baldintzak honako hauek dira:

1. Betekizun administratiboak:

a) EAEko Administrazioak izapidetze elektronikorako baimendutako ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun, hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakundearen Ordezkaria)
- FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria)
- NAN-e
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

b) Egoera hauetakoren batean egotea:

a. Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria edukitzea.

b. Aldi baterako gaikuntza-sisteman alta emanda egotea.

c. Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkartuta aurkezten badira, esleipendun izanez gero ABEE formalki eratzeko konpromisoarekin: ABEEren konpromisoak erregistratuta egon behar du aldi baterako gaikuntzaren sisteman.

2. Baldintza teknikoak:

Baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri: https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu//

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua: **945016298**.

22.2.- Aurkezteko modua:

a) Luzapen hauekin gordetako dokumentuak soilik irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z

b) Birusek sistemaren eraginkortasunean izan dezaketen eragina minimizatzeko, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea gomendatzen da.

c) Eskaintza aurkezteko epean jaso dela ulertuko da, baldin eta transmisioa haren barruan hasi eta arrakastaz amaitzen bada.

23. klausula. Proposamenen forma eta edukia.

Proposamenek eta horiekin batera doan dokumentazioak **HIRU (3) ARTXIBO** izango dituzte.

A) 1. ARTXIBOA. ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA.

B) 2. ARTXIBOA. BALIO-IRITZI BATEN ARABERA KUANTIFIKATZEN DIREN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKO.A

C) 3. ARTXIBOA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

Lizitatzaileek lizitaziora aurkeztutako dokumentazio edo informazio konfidentziala adierazi beharko dute, sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzaren alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori eragiten dielako, dela lizitazio-prozedura honetan, dela geroagoko beste batzuetan. Konfidentzialtasuna ezin izango da hedatu proposamenaren eduki osora, eta hedapen mugatua duten dokumentuei bakarrik eragin ahal izango die, eta inola ere ez jendaurrean eskuragarri dauden dokumentuei.

Gutun-azaletan honako agiri hauek sartu beharko dira:

A) "ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA" IZENEKO 1. ARTXIBOA, nahitaez honako dokumentu hauek jasoko dituena:

1. Lizitatzailearen **erantzukizunpeko adierazpena**, kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko aurretiazko betekizunak betetzeari buruzkoa, Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Betearazpen Erregelamenduak (EB) ezarritako **Kontratazio Agiri Europar Bakarraren (KAEB)** inprimaki normalizatuaren arabera, klausula-agiri honen **II. eranskinean** jasotakoaren arabera.

   Enpresaburu bat baino gehiago aldi baterako elkartea osatzen badute, enpresaburu bakoitzak jarduteko gaitasuna duela egiaztatu beharko du. Horretarako, bakoitzak KAEB inprimaki bat aurkeztu beharko du, bai eta klausula honetako atal honetan eskatzen diren gainerako agiriak ere. Horrez gain, konpromiso-idazki bat aurkeztu beharko du, eta bertan adieraziko dira elkartutako enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, enpresaburu bakoitzaren partaidetza-ehunekoa eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar baten izendapena, kontratua indarrean dagoen bitartean Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean erabateko ordezkaritza izan behar duena. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariek sinatu beharko dute.

   Lizitatzaileak beste erakunde batzuek kaudimena egiaztatzeko duten gaitasuna baliatu behar badu, erakunde horien KAEB agiri bereizia ere aurkeztu beharko du.

   Enpresa lizitatzaileak jardueraren bat azpikontratatzea proposatzen badu, KAEB agirian adierazi beharko du zein jarduera azpikontratatu nahi den, zein kontratista eta kontratuaren prezioaren zer portzentajetan (BEZik gabe).

   Kontratua lotetan banatuta badago eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta tekniko edo profesionaleko baldintzak aldatzen badira lote batetik bestera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da kaudimen-baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote-multzo bakoitzeko.

   Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresek KAEB agiriaren formularioan bertan adieraziko dute, eta eskatutako datu edo informazioren bat ez badago erregistroan jasota edo ez badago eguneratuta, inprimaki hori betez aurkeztuko dituzte.

   Hala ere, kontratazio-organoak komenigarritzat jotzen badu, prozeduraren amaiera ona bermatzeko, esleipen-proposamena onartu aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela.

2.- Talde bereko enpresak.

Talde bereko enpresek, hau da, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean daudenek eta esleipenera banaka aurkezteko proposamen desberdinak aurkezten dituztenek (edo taldekoak ez diren beste enpresa batzuekin batera, baldin eta aldi baterako elkartean parte hartzen badute) baldintza hori jasotzen duen adierazpena aurkeztu beharko dute.

Adierazpen esplizitua aurkeztu beharko dute, halaber, zenbait proposamen aurkeztu eta Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako kasuetan parte hartzen duten sozietateek, sozietate hori osatzen duten bazkideei dagokienez.

3.- Enpresaburuen Aldi Baterako Batasuna eratzeko konpromisoa, hala badagokio.

Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera aldi baterako elkarte bat eratuz joaten direnean, agiri pribatu bat aurkeztu beharko dute, honako hauek adierazita: enpresa sinatzaileen izenak eta inguruabarrak, enpresa bakoitzaren partaidetza, eta aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko

konpromisoa hartzen dutela, esleipendun izanez gero (SPKLren 69. art. eta APKLEOren 24. art.). Agiri hori aldi baterako batasuna osatzen duten enpresetako bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere KAEB agiria aurkeztu beharko du.

4.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa

Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, legokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko diote.

Eskaintzan jasotako datu pertsonalak tratatzeko baimena eta, kontratuaren esleipendun izanez gero, datuen tratamendurako kontratua sinatu eta betetzeko konpromisoa, tratamenduaren arduradun den aldetik, klausula-agiri honen **IV. eranskineko** ereduaren arabera.

Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean gertatu beharko dira, eta kontratua gauzatzeko unean iraun beharko dute.

B) 2. ARTXIBOA. "BALIO-IRITZI BATEN ARABERA KUANTIFIKATZEN DIREN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA.".

Artxibo horretan, hala badagokio, **1. eranskineko 19. atalean** eskatzen den dokumentazio teknikoa jasoko da, **1. eranskineko 17. atalean** zehaztutako balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren esleipen-irizpide objektiboak aplikatzeko, bai eta lizitatzaileak oro har beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia ere.

Artxibo elektroniko honetan ez dira inoiz sartu beharko C artxibo elektronikoari dagozkion dokumentuak. Datu horietako edozein B artxiboan sartzen bada, enpresa lizitatzailea prozedura honetatik kanpo utzi ahal izango da, eta C gutun-azala ez da irekiko.

C) 3. ARTXIBOA. "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATZEN DIREN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA".

Artxibo elektroniko horretan proposamen ekonomikoa eta formula aplikatuz ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak sartu beharko dira.

Proposamenek **V. ERANSKINEKO** ereduaren araberakoak izan beharko dute. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek zerbitzuaren kostuen egitura jasotzen duen memoria bat izan beharko dute.

Proposamenen batek lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua funtsean aldatzen badu, edo proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena eragiten badu, edo lizitatzaileak onartzen badu akatsak edo funtsgabetasunak dituela, eta, ondorioz bideraezina dela, mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Nolanahi ere den, ereduko hitz batzuk aldatu edo ez agertzea ez da izango nahikoa arrazoi proposamena baztertzeko, betiere ereduko testuaren zentzua aldatzen ez bada.

Artxibo elektroniko honetan ez dira, inola ere, B artxibo elektronikoko dokumentuak sartu beharko. Datu horietako edozein C artxiboan sartzen bada, dokumentu horiek ez dira baloratuko, eta, beraz, automatikoki kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkio esleituko.

24. klausula. Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialak.

9/2017 Legearen 133. artikuluaren arabera, Urola Kostako Udal Elkarteak ez du zabalduko enpresaburuek eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jo duten informazioa. Horretarako, **III. ERANSKINA** erabiliko du.

Konfidentzialak dira, besteak beste, sekretu teknikoak edo komertzialak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio, lizitazio-prozedura horretan edo geroagoko beste batzuetan.

Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun-betebeharra ezin izango da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osora. Era berean, egindako eskaintza ekonomikoa ez da inola ere konfidentziala izango.

25. klausula. Aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa, balorazioa eta proposamenak irekitzea.

Proposamenak onartzeko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaia eratuko da, administrazio-dokumentazioa jasotzen duen gutun-azala irekitzeko. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo omisioak ikusten baditu, interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez hiru egun naturaleko epea emango die lizitatzaileek zuzendu edo konpon ditzaten, edo argibide edo agiri osagarriak aurkez ditzaten.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Mahaiak erabakiko du zein enpresa onartu diren lizitaziorako, zein baztertu diren eta zergatik baztertu diren, dagokionaren arabera.

Gehienez ere zazpi eguneko epean, dokumentazioa irekitzen denetik zenbatzen hasita, balio-judizio baten (2 gutun-azalaren) arabera haztatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa duten gutun-azalak irekiko dira, eta balorazioaz arduratzen den organoari emango zaio haietan jasotako dokumentazioa, eta egindako guztia agiri bidez jasoko da.

Jendaurreko ekitaldian, Mahaiak lizitatzaileei jakinaraziko die dokumentazioa egiaztatzearen emaitza eta, hala badagokio, balio-judizioaren arabera haztatu beharreko esleipen-irizpideen aurretiazko balorazioa. Jarraian, 3. gutun-azala irekiko du ("Proposamen ekonomikoa eta formulak aplikatuz automatikoki ebaluatzen diren esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa"), eta onartutako enpresen eskaintzak irakurriko ditu, bai eta, hala badagokio, formulak aplikatuz automatikoki ebaluatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa ere.

Bereziki baxua den proposamen bat identifikatzen bada, SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako izapideak egingo dira, **1. eranskineko 17. atalean** adierazitakoaren arabera.

Bi eskaintza edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, klausula-agiri honetan adierazitako berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa eskatuko zaie eragindako lizitatzaileei.

II. KAPITULUA. Esleipen-proposamena, esleipena eta perfekzioa eta formalizazioa.

26. klausula. Esleipen-proposamenaren ondorioak. Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia eta Urola Kostako Udal Elkarteak esleipen-prozeduran atzera egitea.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez dio inolako eskubiderik emango proposatutako lizitatzaileari, eta ez ditu eskuratuko Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean, kontratua formalizatu arte.

SPKLren 152. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du kontratua ez esleitzea edo egitea edo prozeduran atzera egitea.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik bakarrik hartu ahal izango da kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia. Prozeduran atzera egiteak kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen-prozedura arautzen dutenetan zuzendu ezin den arau-hauste batean oinarrituta egon beharko du, eta espedientean justifikatu beharko da horren kausa.

27. klausula. Kontratua esleitzea.

Kontratua esleitzea klausula-agiri honen **I. eranskineko 2. atalean** adierazitako kontratazio-organoari dagokio.

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari esleituko dio kontratua, SPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, eskaintzarik onena preziorik baxuena duena dela ulertuko da, ezohiko eskaintza baxuak zehazteko irizpideak aplikatzea galarazi gabe. Esleipena, hainbat irizpide erabiliz, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onenaren arabera egingo da.

Mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatuko dio, komunikazio elektroniko bidez, behin betiko bermea eratu dezan, bai eta 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa aurkez dezan eta 76.2 artikuluaren arabera kontratua gauzatzeko erabiliko edo atxikiko dituen baliabideak dituela justifikatzeko dokumentazioa aurkez dezan ere, eta, hala badagokio, klausula-agiriaren **I. eranskineko 16. atalean** adierazten diren polizak izenpetu ditzan, eta hori guztia 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik kontatzen hasita.

Enpresaburua Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean agertzen bada, enpresaren espediente birtual bat, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema bat edo aurrekalifikazio-sistema bat bezala, eta organo horiek doan eskuratu badaitezke, ez du aurkeztu beharrik izango toki horietan inskribatutako datuei buruzko justifikazio-agiririk edo bestelako froga dokumentalik, eta lizitatzaileak dagokion Erregistroan edo datu-basean inskribatuta dagoela adierazi beharko du berariaz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean izena emanez gero, inskribatutako lizitatzaileak salbuetsita egongo dira kontratazio-deialdietan, adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak aurkeztetik, haren izaerari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide- edo enpresa-gaikuntzari, ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta sailkapenari dagokienez, bai eta bertan jaso beharreko kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztazen duen agiria ere.

SPKLren 139.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamenak aurkezteak baimena ematen dio kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Gainera, 10 egun balioduneko epean, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein agiri aurkeztu beharko du.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo erregistro baliokidean inskribatuta ez badago, edo datu edo dokumenturen bat erregistro horretan inskribatuta ez badago, kontratazio-mahaiak eskaintza onena aurkeztu duen enpresaburuari eskatu beharko dio, bai eta ABEEa osatzen duten eta esleipendun gisa proposatu diren enpresa guztiei ere, jakinarazpena bidali eta 10 egun balioduneko epean, hala badagokio, dokumentazio hau aurkez dezaten:

1.- Jarduteko gaitasuna.

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa bada, eratze-eskritura edo -agiria, bere jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituzten estatutuak edo sortze-egintza, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan, bai eta identifikazio fiskaleko zenbakia ere (IFZ).
1.2.- Banakako enpresaburua bada, NANa edo, hala badagokio, haren ordezko agiria.
1.3.- Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak badira, dagokion erregistroan inskribatuta egotearen bidez egiaztatuko da, ezarrita

dauden estatuko legeriaren arabera, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztuta, Erkidegoko xedapen aplikagarrien arabera.
1.4.- Aurreko paragrafoan aipatzen ez diren atzerriko enpresen kasuan, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena, enpresak egiaztatu ondoren.

1.5.- Nazioarteko akordioetatik eratortzen diren Espainiaren betebeharrak aplikatzea eragotzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, aldi berean, Espainiako enpresek 3. artikuluan zerrendatzen diren eta onargarriak diren sektore publikoko erakundeekin egindako kontratazioetan parte hartzea. Funtsean txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.

1.6.- Atzerriko enpresek ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulitako dokumentazioa aurkeztuko dute.

2.- Ahalordeak.

Lizitatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo pareko erregistroan inskribatuta badago, ez da beharrezkoa izango ahalordea aurkeztea, ordezkaritza hori behar bezala inskribatuta dagoenean.

Lizitatzailea erregistro horretan inskribatuta ez badago, beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek edo pertsona juridiko bat ordezkatzen dutenek eskriturak edo ordezkariaren ahalmenak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte.

3.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

Lizitatzaileek kaudimena egiaztatu ahal izango dute ekonomia-, finantza- eta teknika- edo lanbide-kaudimenari buruzko berariazko betekizunen bidez, klausula-agiri honen **I. eranskineko 11. atalean** adieratako bitartekoak erabiliz, edo bestela, **I. eranskineko 11. atalean** adierazitako taldean edo azpitaldean eta kategorian sailkatuta.

Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresaburu ez-espainiarrek beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, SPKLren 87. eta 90. artikuluetan ezarritako moduan, eta kontratazio-organoakagiri honen **I. eranskineko 11. atalean** aurreikusitako bideak erabiliz.

Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu kideek ezarritako kontratatzeko baimena duten enpresaburuen zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek emandako inskripzio-ziurtagiriak, ziurtagiria ematen duen estatu kideko enpresaburuei dagozkienak, gaitasun-presuntzioa izango dira, bertan ageri diren hautaketa kualitatiboko betekizunei dagokienez.

Presuntziozko balio bera izango dute, ziurtagirietan jasotako alderdiei dagokienez, enpresaburua kokatuta dagoen estatu kideko legeriarekin bat etorriz Europako ziurtapen-arauak betetzen dituzten ziurtapen-erakunde eskudunek egindako ziurtagiriek.

Aurreko paragrafoan aipatutako agiriek enpresaburua zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dituzte, bai eta lortutako sailkapena ere.

4.- Enpresa-gaikuntza.

Lizitatzaileak enpresa-gaikuntza egiaztatu behar badu klausula-agiri honen **I. eranskineko 13. atalean** xedatutakoaren arabera, gaikuntza hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

5.- Enpresaburuen aldi baterako elkarteak.

Aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala zehazteko orduan, elkarteko kide bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira.

Taldekatuta aurkezten diren enpresaburuei dagokienez, sailkapen-betekizuna baloratzeko eta balioesteko, enpresaburu bakoitzaren ezaugarri metatuak hartuko dira kontuan, erregelamendu bidez zehazten den moduan, bakoitzaren sailkapenetan adierazita. Nolanahi ere, metaketa hori egiteko, beharrezkoa izango da enpresa guztiek aldez aurretik zerbitzu-enpresa gisa sailkatuta egotea, Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez-espainiarrentzat eta artikulu honetako 4. apartatuan Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuentzat ezarritakoa eragotzi gabe.

Sailkapenak metatzeko araubidea erregelamendu bidez ezarritakoa izango da.

Sailkapena eska daitekeen kasuetan eta elkartean enpresaburu nazionalek, Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu bateko herritarrak ez diren atzerritarrek eta Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu bateko herritarrak diren atzerritarrek parte hartzen badute, lehen bi taldeetako kideek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta azken horiek kaudimen ekonomikoa, finatzarioa eta teknikoa edo profesionala.

Kontratua aldi baterako enpresa-elkarte bati esleitzen bazaio, elkarte horrek eskritura publikoan eratu dela egiaztatuko du, bai eta elkarte horri esleitutako IFZ ere, kontratua haren alde esleitu ondoren. Nolanahi ere, elkartearen iraupena kontratua azkendu artekoa izango da.

6.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Zerga-betebeharrak:

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta eman izanaren jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, betiere zerga horri lotutako jarduerak egiten baditu, dagokion ekitaldiari edo azken ordainagiriari buruzko proposamena aurkezten duen egunean egiten dituen jarduerei dagokienez, eta zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin osatuta.

   Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, salbuespenaren arrazoia adieraziz. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 82.1 artikuluko b), e) eta f) letretan ezarritako salbuespenen batean egonez gero, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren salbuespenari buruzko berariazko ebazpena ere aurkeztu beharko dute.

   Aldi baterako enpresa-elkarteek, eraketa formalizatu ondoren, zergan alta emanda daudela egiaztatu beharko dute, hura osatzen duten enpresei dagokien tributazioa alde batera utzi gabe.

d) Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa, APKLEOren 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla oro har jasotzen duena.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako ziurtagiri positiboa, APKLEOren 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla oro har jasotzen duena.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hemezortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, araubide berezian alta emateko betebeharretik salbuetsita dauden eta dagokion lanbide-elkargoko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean sartzeko aukera egin duten elkargokide profesionalek

kasuan kasuko mutualitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, mutualitatekoak direla egiaztatzen duena.

Ziurtagiri hori aurkezteak ez du interesduna salbuesten klausula-agiri honetan adierazten diren gainerako betebeharrak justifikatzetik, baldin eta bere kargura langileak baditu; bestela, egoera hori erantzukizunpeko adierazpen bidez justifikatu beharko du.

Dokumentazioa aurkeztu ondoren, esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari esleituko zaio kontratua, eta esleitu ondoren, formalizatu egingo da. Bestela, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo) % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, zigor gisa, 71. artikuluaren 2. apartatuko a) letran ezarritakoa galarazi gabe, eta puntuazioan hurrengo hautagaiaren aldeko esleipen-proposamena egingo da, eskatutako dokumentazioa aurkezteko 7 egun balioduneko epea emanez.

Esleipena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.
Kontratazio-organoak lizitazioa esleitu gabe utzi ahal izango du, hala badagokio, kontratazio-mahaiak proposatuta, klausula-agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintzarik edo proposamenik ez badago.

SPKLren 147.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren eskaintza bat baino gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honako irizpide sozial hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari dagozkionak:

a) Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa, eta berdintasuna gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo inklusio-egoeran dauden langileen kopuru handiena lehenetsiko da.
b) Aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena enpresa bakoitzeko plantillan.
e) Enpresa bakoitzeko plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiena.
f) Aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada, zozketa egingo da.

Irizpide horiek aplikatzeko, lizitatzaileek, hala badagokio, lan-kontratuen eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agirien bidez egiaztatu beharko dituzte, bai eta zuzenbidean onartutako beste edozein agiriren bidez ere, arestian aipatutako irizpide sozialak egiaztatzen badituzte.

7.- Laneko arriskuen prebentzioa.

VI. ERANSKINEAN jasotako dokumentazio guztia.

28. klausula. Kontratua gauzatzea eta formalizatzea.

Kontratua formalizatzearekin batera gauzatuko da, eta kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen, kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtso berezia jar badaiteke.

Kasu horretan, kontratazio-organoak, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri ez bada, edo etendura bertan behera utzi bada, kontratua formalizatzeko eskatuko dio esleipendunari, gehienez ere bost eguneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gainerako kasuetan, lizitatzaileei esleipenaren jakinarazpena egin eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen formalizatu beharko da kontratua.

Kontratua idatziz formalizatu beharko da, eta lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko da. Gainera, eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen badu, eta kontratua emateak dakartzan gastuak bere gain hartuko ditu. Kasu horretan, kontratistak aipatutako dokumentuaren kopia legitimatu bat eta kopia sinple bat eman beharko dizkio Urola Kostako Udal Elkarteari, formalizatzen denetik gehienez hilabeteko epean.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua epe horren barruan formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZ kanpo, zigor gisa, eta, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko da, baldin eta berme hori eratu bada, SPKLren 71. artikuluko 2. apartatuko b) letran ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

III. TITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA.

I. KAPITULUA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak.

Lehehengo atala. Kontratistari egin beharreko ordainketak.

29. klausula. Balorazioak eta ordainketak.

Kontratistak eskubidea du emandako kontratuaren, haren aldaketa onetsien eta Urola Kostako Udal Elkarteak emandako jarraibideen arabera benetan gauzatzen dituen zerbitzuak ordain dakizkion, hitzartutako prezioen arabera. Ordaintzeko modua eta maiztasuna klausula-agiri honen **I. eranskineko 7. atalean** zehaztutakoak izango dira.

Horretarako, SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalarekin bat etorriz, kontratistak kontratazio-organoaren eta hartzailearen identifikazioa idatziz jaso beharko du aurkeztutako faktura bakoitzean, klausula-agiri honen **I. eranskineko 2. atalean** xedatutakoaren arabera.

Urola Kostako Udal Elkarteak hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako zerbitzuen kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, berandutuz gero, hogeita hamar eguneko epe horretatik aurrera, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan, operazioetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituena.

Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak dagokion erregistroan faktura aurkezteko betebeharra beteta izan beharko du, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, garaiz eta behar bezala, eta, horretarako, hogeita hamar eguneko epea izango du, salgaiak entregatzen direnetik edo zerbitzua ematen denetik zenbatzen hasita.

210. artikuluaren 4. apartatuan ezarritakoa alde batera utzi gabe, emandako zerbitzuen kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu beharko ditu Urola Kostako Udal Elkarteak, zerbitzua eman eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Nolanahi ere, kontratistak ez badu hogeita hamar eguneko epea betetzen faktura elektronikoa dagokion erregistroan aurkezteko, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, interesen sortzapena ez da hasiko faktura behar bezala aurkeztu eta hogeita hamar egun igaro arte, Urola Kostako Udal Elkarteak onespenik eman gabe, hala badagokio, eta dagokion ordainketa egin gabe.

Segidako traktuko zerbitzu-kontratuetan, kontratuaren arduradunak, benetan egindako lanak eta kontratatutako prezioak ikusita, dagozkion balorazioak idatziko ditu, APKLEOren 199. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Balorazioak jatorrian egingo dira beti, eta kasuan kasuko aldian egindako lanak zehaztuko dira. Kontratistaren entzunaldiari dagokionez, APKLEOren 149. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Egindako lanak ordaintzeko ziurtagiriak egiteko, dagokion balorazioa hartuko da oinarritzat, eta kontratuaren arduradunak izapidetuko ditu, lanei dagokien denbora-tartearen ondorengo hamar

egunen barruan. Hala ere, ezin izango da balorazioa idatzi gabe utzi, aldi batean egindako prestazioa bolumen txikikoa izan delako, ezta baliogabea ere, kontratua etetea erabaki ez bada behintzat.

Klausula-agiri honen **I. eranskineko 7. atalean** berariaz aurreikusten bada, balorazio partzialak egin ahal izango dira lanen zati bat entregatu aurretik egindako lanengatik, APKLEOren 200. artikuluaren arabera; kasu horretan, klausula-agiri honen **I. eranskineko 7. atalean** xedatutakoari jarraituko zaio.

Bigarren atala. Kontratistari egin beharreko eskakizunak.

30. klausula. Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak.

Kontratua gauzatzeko, kontratuaren klausulak bete beharko dira, eta Urola Kostako Udal Elkarteak kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideak bete beharko dira.

Kontratistaren kontura izango dira gastu eta zergak, kontratua eskritura publiko bihurtuz gero kontratua formalizatzekoak, bai eta kontratua gauzatzeko behar diren lizentzia, onespen eta baimen guztiak ere. Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, bere ardurapeko langileen ordainsariak, egiaztapen- eta entsegu-gastuak, tasak eta era guztietako zergak, BEZa eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzetik erator daitezkeen beste guztiak.

Lizitatzaileek egiten dituzten eskaintzetan eta esleipen-proposamenetan, ondorio guztietarako, kontzeptu desberdinak zergapetzen dituzten edozein motatako zergak sartzen direla ulertuko da.

Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoan, partida independente gisa adieraziko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa.

Hirugarren atala. Lan- eta gizarte-xedapenak eta gardentasun-xedapenak

31. klausula. Lan-, gizarte eta gardentasun-betebeharrak.

Kontratistak lanaren eta gizarte-segurantzaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du. Era berean, nahitaez bete behar ditu azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretu bidez onartua, bai eta kontratua gauzatzean aldarrikatzen diren arauak ere, klausula-agiri honen **VI. eranskinaren** arabera.

Enpresa kontratistak, kontratua gauzatzeko aldi osoan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak bete beharko ditu; nolanahi ere, esleipendunak langileen soldata-baldintzak bete beharko ditu, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

Era berean, Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratuaren esleipendunak arau horretan aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar den informazio guztia eman beharko dio Urola Kostako Udal Elkarteari, aldez aurretik eskatuz gero.

32. klausula. Lan-kontratuetako subrogazio-baldintzei buruzko informazioa.

Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek esleipendunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa emango zaie lizitatzaileei, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza

ahalbidetzeko beharrezkoa dena, eta informazio hori SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko ematen da.

Kontratu honen esleipendun gertatzen den enpresak, eragindako langileak enplegatzen baditu, aurretik aipatutako informazioa eman beharko du, kontratuaren arduradunak hala eskatuta. Informazioaren zati gisa, subrogatuko diren langileen zerrendak aurkeztu beharko dira, honako hauek adierazita: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, kategoria-xehetasunak, kontratu-mota, lanaldia, antzinatasun-data, kontratuaren epemuga, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, eta subrogazioak eragiten dien langileei aplikatu beharreko indarreko itun guztiak.

Nolanahi ere, subrogazio-araubideari dagokionez, SPKLren 130. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betez, legezko arau baten, hitzarmen kolektibo baten edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio baten bidez subrogatzeko betebeharra **I. eranskineko 1. atalean** jasotzen da, eta, hala badagokio, kontratuaren xede den prestazioa egiten ari den enpresak emandako informazioa, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioari buruzkoa, lan-kostuen ebaluazio zehatza ahalbidetzeko.

Halaber, eta, hala badagokio, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzea eragotzi gabe, kontratistak nahitaez erantzun behar die subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldatei, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioei ere, nahiz eta kontratua suntsiarazten den eta kontratista berriak haiek subrogatzen dituen, baina betebehar hori ez dagokio inola ere azken kontratistari. Kasu horretan, Urola Kostako Udal Elkarteak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatuta, aipatutako Legearen artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatuko du

Kontratistak SPKLren 130. artikuluan aurreikusitako betebeharra betetzen ez badu, zigorrak ezarriko dira 192. artikuluan ezarritako mugen barruan, **klausula-agiriaren I. eranskineko 27. atalarekin** bat etorriz.

Laugarren atala. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa

33 . klausula. Konfidentzialtasunaren betebeharra.

Konfidentzialtasunari dagokionez, SPKLren 133. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du kontratistak, baldin eta agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo, bere izaeragatik, isilpekotzat hartu behar bada. Betebehar hori klausula-agiri honen **I. eranskineko 30. atalean** ezarritako epean mantenduko da.

Ezin izango da zabaldu enpresaburuek konfidentzialtzat jo duten eta kontratazio-organoak hala erabaki duen informazioa. Ondorio horietarako, lizitatzaileek gutun-azal bakoitzean izaera konfidentzial hori proposatzen duten dokumentuen zerrenda sartu beharko dute, eta horren arrazoia azaldu beharko dute.

34. klausula. Datu pertsonalen babesa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoan, xedatutakoaren arabera, 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, lizitatzaileen eta zerbitzuaren esleipendunaren datu pertsonalen tratamenduari buruzko honako alderdi hauen berri ematen da:

Tratamenduaren arduraduna: Urola Kostako Udal Elkartea. IFK: G20392064. Helbidea: Urdaneta bidea 6, P.K. 20800 Zarautz (Gipuzkoa). Telefonoa: 943 89 08 08. Helbide elektronikoa: idazkaritza@urolakosta.eus

Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak: dbo@urolakosta.eus

Tratamenduaren helburua: zerbitzuaren lizitazio hau kudeatzea, azkenean esleipendun izanez gero, kontratu-harremana eta ematen dituen zerbitzuak behar bezala mantentzeko, garatzeko, betetzeko eta kontrolatzeko.

Legitimazioa: lizitatzaileen datu pertsonalei dagokienez, datu pertsonalak tratatzeko oinarri legala edo juridikoa hura kudeatzeko beharrezkoak diren kontratu aurreko neurrien aplikazioa da.

Esleipendunaren datu pertsonalei dagokienez, legezko oinarria alderdien artean sinatzen den kontratua gauzatzea da.

Datuen hartzaileak: Datu pertsonalak kontratazioari dagokion obra edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik lagako zaizkie. Ez da aurreikusten datu horiek hirugarren herrialdeetara transferitzea.

Datuak gordetzeko epea: lizitatzaileen datu pertsonalak lizitazioaren indarraldian gordeko ditugu, eta, amaitu ondoren, erantzukizunak preskribatzeko epeetan.
Enpresa esleipendunari dagokionez, legezko betebeharren eta zerga-betebeharren preskripzio-epeetan.

Datuak babesteko eskubideak: Interesdunek datuak eskuratu, zuzendu edo, hala badagokio, tratamendua ezabatu, aurka egin edo mugatu dezakete, Datuak Babesteko ordezkariaren bidez. Halaber, interesdunek eskubidea dute Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamatzeko.

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak 9/2017 Legearen 25. xedapen gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari dagokionez.

Lizitatzaileek beren eskaintzetan jasotako datu pertsonalak tratatzeko berariazko baimena ematen dute. Halaber, esleipendunak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, kontratu bat sinatu beharko du Urola Kostako Udal Elkartearekin, kontratuaren xedea betetzeko behar diren datu pertsonalen tratamendurako. Horretarako, baimen eta konpromiso horiek emateko, lizitatzaileek, eskaintzarekin batera, klausula-agiri honen **IV. eranskineko** ereduan jasotako aitorpena sinatu eta aurkeztu beharko dute.

Bosgarren atala. Kalteengatiko aseguruak eta erantzukizunak

35. klausula. Aseguruak.

Kontratistak nahitaez izenpetu beharko ditu, bere kargura, klausula-agiri honen **I. eranskineko 16. atalean** adierazten diren aseguru-polizak, bertan ezartzen diren kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzekin.

36. klausula. Kontratistaren erantzukizuna kalte-galerengatik.

Esleipenduna izango da kontratua gauzatzea eskatzen duten eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten dizkieten zuzeneko eta zeharkako kalte-galeren erantzulea.

Eragindako kalte-galerak Urola Kostako Udal Elkarteak emandako agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio badira, Udal Elkartea izango da erantzule, legeetan adierazitako mugen barruan.

Era berean, esleipenduna izango da lanen eta egindako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, bai eta kontratua gauzatzean izandako akats edo ez-egite edo metodo desegokien edo ondorio okerren ondorioz Urola Kostako Udal Elkarteari edo hirugarrenei sortzen zaizkien ondorioen erantzule ere.

Kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak behar bezala ez gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra betetzen ez badu, Urola Kostako Udal Elkarteak klausula-agiri honen **I. eranskineko 27. atalean** zehazten diren zigorrak ezarriko ditu.

Enpresa esleipendunak klausula-agiri honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz Urola Kostako Udal Elkartea enpresa kontratistarekiko zenbateko solidarioak ordaintzera kondenatzen bada, ordaindutako zenbatekoa jasanaraziko zaio kontratistari. Horretarako, Urola Kostako Udal Elkarteak egokitzat eta komenigarritzat jotzen diren ekintza administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako kopuru guztiak berreskuratu arte.

II. KAPITULUA. Lagapena eta azpikontratazioa.

37. klausula. Kontratua lagatzea.

Kontratu honen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio esleipendunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarri izan ez badira, SPKLren 214.2 artikuluan ezarritako kasuak eta baldintzak betetzen badira, eta lagapenaren ondorioz merkatuko lehia benetan murrizten ez bada. SPKLren 214. artikuluko 2. apartatuko b) idatz-zatian ezarritakoa eragotzi gabe, ezin izango zaio hirugarren bati laga kontratistaren ezaugarriak funtsean aldatzea badakar, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

38. klausula. Azpikontratazioa.

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du kontratuaren zati bat egitea, salbu eta SPKLren 215. artikuluko 2. apartatuko d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera prestazioa edo prestazioaren zati bat zuzenean kontratistak egin behar badu, eta SPKLren 215. artikuluko 2. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Baldintza horiek hausteak, bai eta azpikontratistaren gaitasuna edo larrialdi-egoera zehazten duten inguruabarrak edo azpikontratazioa premiazkoa egiten dutenak ez egiaztatzeak ere, SPKLn aurreikusitako beste batzuen artean, eta kontratua gauzatzean izandako eraginaren arabera, honako ondorio hauetakoren bat izango du:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50era arteko zigorra ezartzea, klausula-agiri honen **I. eranskineko 27. atalean** ezarritakoaren arabera.
b) Kontratua suntsiaraztea, betiere SPKLren 211. artikuluko 1. apartatuko f) idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Era berean, azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketei dagokienez, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan ezarritako betekizunak eta betebeharrak bete beharko ditu.

Nolanahi ere, azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean soilik egongo dira behartuta, eta hark hartuko du bere gain, beraz, kontratua Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean gauzatzeko erantzukizun osoa, administrazio-klausula partikularren agiriekin eta kontratuaren baldintzekin bat etorriz, SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Azpikontratistek ez dute akzio zuzenik izango Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean, kontratistak kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzearen ondorioz haiekin hartutako betebeharrengatik.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenez ere, kontratua gauzatzen hasten denean, kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela; horretarako, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta ordezkaria edo legezko ordezkariak adierazi beharko dizkio, eta behar bezala justifikatu beharko du azpikontratista prestazioa gauzatzeko gai dela, dituen elementu teknikoak eta giza baliabideak eta esperientzia kontuan hartuta.

Era berean, Urola Kostako Udal Elkarteari egin beharreko azpikontratuaren berri emateko idazkiarekin batera, kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik SPKLren 71. artikuluaren arabera. Hori egiaztatzeko, azpikontratistaren erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko da.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia gauzatzean informazio horrek izan dezakeen edozein aldaketa, bai eta azpikontratista berriei buruz beharrezkoa den informazio guztia ere.

Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan-arloko legeriaren arabera.

Halaber, lizitatzaileek kontratuaren zein zati azpikontratatu nahi duten adierazi beharko dute beren eskaintzan, zenbatekoa adierazita, bai eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere, azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta. Kasu horretan, azpikontratuak eskaintzan adierazitakoarekin bat ez badatoz, ezin izango dira egin harik eta aurreko paragrafoan aipatutako justifikazioak jakinarazi eta aurkeztu eta hogei egun igaro arte, salbu eta Urola Kostako Udal Elkarteak aldez aurretik berariazko baimena eman badu edo justifikatutako larrialdi-egoeran badago, non eta Urola Kostako Udal Elkarteak ez duen epe horretan jakinarazten aurka dagoela.

SPKLren 217.1 artikuluarekin bat etorriz, kontratistak kontratazio-organoari igorri beharko dio, hark hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza, haien partaidetza osatzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura badute. Era berean, Urola Kostako Udal Elkartearen eskariz, azpikontratista edo hornitzaileei ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, behin prestazioa amaituta, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen barruan, aplikagarri zaion guztian. Betebehar horiek kontratua gauzatzeko funtsezko baldintzatzat hartuko dira, eta horiek ez betetzeak, ordenamendu juridikoan aurreikusitako ondorioez gain, klausula-agiri honen **I. eranskineko 27. atalean** aurreikusitako zigorrak ezartzea ahalbidetuko du.

SPKLren 217.2 artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako ez-betetzeengatiko zigorrak egiaztatzeko eta ezartzeko jarduketak nahitaezkoak izango dira 5 milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten zerbitzu-kontratuetan, eta azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 30 edo handiagoa denean, kontratista nagusiarekin zati jakin batzuk egiteko konpromisoa kontratuz hartu duten azpikontratistei egindako ordainketei dagokienez.

Kontratista nagusiak azpikontratistak aurkeztutako fakturarekin bat ez etortzearen ondoriozko ordainketa atzeratzea ez zaio inola ere Urola Kostako Udal Elkarteari egotziko.

III. KAPITULUA. Kontratua gauzatzea. Lehen atala. Arriskua eta mentura.

39. klausula. Arriskua eta mentura.

Kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatzetik eratortzen den arriskua, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarren atala. Kontratua betetzea.

40. klausula. Lan-programa.

Lan-programa aurkezteko betebeharra klausula-agiri honen **I. eranskineko 9. atalean** zehaztuko da.

Kontratistak, **I. eranskineko 9. atalean** adierazitako epean, kontratua formalizatzen denetik aurrera, dagokion kontratazio-organoari aurkeztu beharko dio hura egiteko programa, onar dezan, eta bertan jaso beharko ditu zerbitzuaren edukiari erantzuteko beharrezkotzat jotzen dituen zereginak, eta, hala badagokio, zeregin bakoitzari dagozkion epe partzialak proposatu beharko ditu. Ondorio horietarako, astea eta hilabetea erabiliko dira denbora-unitate gisa, baldintza teknikoen agirian kontrakorik adierazi ezean. Lan-programak kontratuan ezarritako entrega-data edo -epe guztiak errespetatuko ditu, eta agiri hartan eskatutako datu guztiak jasoko ditu.

Kontratazio-organoak horri buruzko ebazpena emango du, eta aurkeztutako lan-programari aldaketak, zabaltzeak eta kontratua betetzeko beharrezkotzat jotzen duen definizio-maila ezartzeko aukera izango du.

Zerbitzuak garatzeko esleipendunak erakunde edo organismo publikoekin harremanetan jarri behar badu, kontratazio-organoaren aldez aurreko baimena beharko du.

Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak programa gaurkotu eta eguneratu beharko du.

41. klausula. Lan akastunak edo gaizki egindakoak.

Harrera egin arte, esleipenduna kontratatutako zerbitzuak behar bezala egitearen eta horietan dauden akatsen erantzule izango da, eta Urola Kostako Udal Elkarteko ordezkariek zerbitzuak egin bitartean aztertu edo onartu izana edo egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan onartu izana ez da salbueslerik izango, ezta eskubiderik emango ere.

Baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioen betearazpena partzialki bete ez badu, Urola Kostako Udal Elkarteak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiaraztea edo klausula-agiri honen **I. eranskineko 27. atalean** kasu horietarako zehazten diren zigorrak ezartzea erabaki ahal izango du.

Hirugarren atala. Obra-proiektuak egiteko kontratuko akatsak zuzentzea, kalte-ordainak eta erantzukizunak.

42. klausula. Akatsak eta hutsuneak zuzentzea.

SPKLren 314. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, obra-proiektu bat osorik egiten duten zerbitzu-kontratuetan, kontratazio-organoak eskatuko du kontratistak zuzendu ditzala berari egotz dakizkiokeen akatsak, gabezia teknikoak, errakuntza materialak, omisioak eta lege- edo erregelamendu-aginduen arau-hausteak, eta, horretarako, dagokion epea emango du, gehienez ere bi hilabetekoa.

Epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, Urola Kostako Udal Elkarteak kontratua suntsiaraztea edo kontratistari beste epe bat ematea erabaki ahal izango du, inguruabarrak kontuan hartuta.

Kontratua suntsiaraztea erabakitzen bada, bermea konfiskatu egingo da, eta kontratistak kontratuaren prezioaren % 25eko kalte-ordaina ordaindu beharko dio Urola Kostako Udal Elkarteari.

Beste epe bat ematea erabakitzen bada, hilabete luzaezina izango da, eta kontratistak kontratuaren prezioaren % 25eko zigorra izango du.

Beste ez-betetzeren bat gertatzen bada, kontratua suntsiarazi egingo da, eta kontratistak Urola Kostako Udal Elkarteari hitzartutako prezioaren adinako kalte-ordaina ordaindu beharko dio, bermea galduz.

Kontratistak, azken epea eman aurreko edozein unetan, proiektua gauzatzeari uko egiten badio, kontratuaren prezioaren erdiaren adinako kalte-ordaina ordaindu beharko du, bermea galduz.

43. klausula. Obrak gauzatzean izandako desbideratzeengatiko kalte-ordainak eta proiektuan izandako errakuntza edo akatsengatiko erantzukizuna.

Proiektuan aurreikusitako obra gauzatzeko aurrekontua kontratista aholkulariari egotz dakizkiokeen akats edo ez-egiteen ondorioz obra horren benetako kostutik % 20 baino gehiago desbideratzen bada, bai goitik bai behetik, proiektua egiteko kontratuaren prezioa murriztuko da kalte-ordain gisa, desbideratze-ehunekoaren arabera, haren erdia gehienez ere. Kalte-ordainen baremoa SPKLren 315.1 artikuluan aurreikusitakoa izango da.

Kontratistak hilabeteko epean ordaindu beharko du kalte-ordain horren zenbatekoa, dagokion ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Ebazpena eman aurretik, espedientea izapidetuko da, eta interesdunari entzungo zaio.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, SPKLren 314. artikuluan eta SPKLren 233.4. artikuluko bigarren apartatuan aurreikusitakoa kontuan hartu gabe, kontratistak erantzukizuna izango du obrak egin edo ustiatu bitartean kontratazio-organoari edo hirugarrenei proiektuaren akats eta gabezia teknikoengatik edo proiektuari egotz dakizkiokeen errakuntza materialengatik, omisioengatik eta legezko edo erregelamenduzko aginduen arau-hausteengatik sortutako kalte-galeren gainean.

Kontratistari eska dakiokeen erantzukizunaren ondoriozko kalte-ordaina, hain zuzen, eragindako kalte-galeren zenbatekoaren % 50 izango da, gehienez ere proiektuak itundutako prezioaren halako bost, eta SPKLren 315.2 artikuluan ezarritako moduan eskatu ahal izango da.

Laugarren atala. Epea betetzea eta atzerapenagatiko zigorrak.

44. klausula. Epea betetzea eta kontratu-betebeharrak ez betetzeagatiko zigorrak.

Kontratistak kontratua gauzatzeko ezarritako epe osoaren barruan bete beharko du kontratua, bai eta kontratua ondoz ondo gauzatzeko ezarritako epe partzialen barruan ere.

Baldin eta zerbitzuak gauzatzen atzeratzen badira, eta, betiere, atzerapen hori kontratistari egotzi ezin bazaio, eta kontratistak bere konpromisoak betetzeko eskaintza egiten badu, hasierako gauzatze-epea luzatzen bazaio, kontratazio-organoak onartu egingo dio, eta, gutxienez, galdutako denboraren berdina izango den epe bat emango dio, kontratistak epe laburrago bat eskatzen ez badu, SPKLren 195.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta betekizunak eta izapideak APKLEOren 100. artikuluaren arabera arautuko dira. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du, atzerapena kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik gertatu den zehazteko.

SPKLren 29.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresaburua prestazioa gauzatzen atzeratzen denean, kontratazio-organoak betearazpen-epea luzatu ahal izango du, kasuan kasu dagozkion zigorrak alde batera utzi gabe, eta SPKLren 192. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, epe osoa edo partziala berandu betetzen badu, klausula-agiri honen **I. eranskineko 8. atala** beteko da, eta, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiaraztea edo klausula-agiri honen **I. eranskineko 27. atalean** azaltzen diren zigorrak ezartzea erabaki ahal izango du Urola Kostako Udal Elkarteak.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, BEZik gabe, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita. Azken kasu horretan, kontratazio-organoak kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen duen epea luzatuko du.

Era berean, Urola Kostako Udal Elkarteak prerrogatiba berberak izango ditu, baldin eta epe partzialak betetzeko berandutzearen ondorioz epe osoa betetzea ezinezkoa dela susmatzen badu.

Kontratistak kontratuan zehaztutako epe partzialak betetzen ez baditu, Urola Kostako Udal Elkarteak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo klausula-agiri honen **I. eranskineko 27. atalean** zehaztutako zigorrak ezartzea.

Kontratua zati batean betetzen ez bada, edo gaizki betetzen bada, edo gauzatzea atzeratzen bada eta zigorrik aurreikusten ez bada, edo Urola Kostako Udal Elkarteari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, kalte eta galerengatiko kalte-ordaina eskatuko zaio kontratistari.

Urola Kostako Udal Elkarteak, kontratua gauzatzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa betetzen ez denean (i), edo kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean (ii), kontratua suntsiaraztea (a) edo betetzea eskatu ahal izango du (b), eta kontratistari, kontratua hitzartutako baldintzetan betetzeko betebeharraz gain, zenbateko ekonomikoaren % 20ko zigorra ezarriko dio, betebehar hori kuantifikagarria bada edo, kuantifikagarria ez bada, kontratuaren zenbatekoaren % 10eko zigorra ezarriko da.

Bosgarren atala. Kontratua aldatzea eta etetea.

45. klausula. Kontratua aldatzea.

SPKLren bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 3. ataleko 4. azpiatalean aurreikusitako kasuetan eta moduan bakarrik aldatu ahal izango dira kontratuak, SPKLren 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, SPKLren 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

Kontratazio-organoek egindako kontratuak aldatu ahal izateko, SPKLren 203. artikuluko 2. apartatuan ezarritako kasuren bat gertatu beharko da.

Kontratua administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusitako moduan aldatu ahal izango da, klausula-agiri honen **I. eranskineko 25. atalean** hala ezartzen denean, SPKLren 204. artikuluan adierazitako moduan eta edukiarekin.

Aldaketa horiek kontratuaren hasierako prezioan izan dezaketen gehieneko ehunekoa klausula-agiri honen **I. eranskineko 25. atalean** ezarritakoa izango da.

Kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, SPKLren 206. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu eta aipatutako legearen 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu beharko dira.

Haren araubideari dagokionez, SPKLren bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 3. ataleko 4. azpiatalean eta SPKLren 191. eta 203. artikuluetan xedatutakoa eta erregelamendu bidez xedatutakoa beteko da.

SPKLren 309. artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioa gauzatze-unitateen bidez zehazten denean, ez dira aldaketatzat hartuko, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirian hala ezarri bada, prestazioa behar bezala gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateen aldean benetan gauzatutako unitateen kopuruan bakarrik gertatzen diren aldaketak. Aldaketa horiek likidazioan jaso ahal izango dira, baldin eta gastuaren gehikuntza kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa ez bada.

46. klausula. Kontratua etetea.

Urola Kostako Udal Elkarteak kontratuaren betearazpena etetea erabaki dezake. Era berean, SPKLren 198.5 artikuluan adierazitako egoera gertatzen bada, kontratua eten egingo da. Kontratua eteteari dagokionez, SPKLren 208. artikuluan eta APKLEOren bat datozen aginduetan xedatutakoa beteko da.

SPKLren 208. artikuluarekin bat etorriz, Urola Kostako Udal Elkarteak kontratua etetea erabakitzen badu edo kontratua etetea SPKLren 198.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz gertatzen bada, Urola Kostako Udal Elkarteak kontratistari ordainduko dizkio benetan jasandako kalte-galerak, klausula-agiriaren **I. eranskineko 26. atalean** ezarritako arauei jarraituz.

Esleipendunak kontratuaren betetzea etetea sustatu ahal izango du, ordainketa lau (4) hilabetetik gora atzeratu bada.

Horretarako, egoera horren berri eman beharko dio Urola Kostako Udal Elkarteari, hilabete (1) lehenago, etenaldi horretatik erator daitezkeen eskubideak aitortzeko.

Klausula honetan jasotako bi kasuetako edozeinetan, alderdiek akta bat egingo dute, eta, bertan, honako hauek jasoko dira: kontratua etetea eragin duten inguruabarrak (i) eta kontratua gauzatzean izandako egitatezko egoera (ii).

IV. KAPITULUA. Kontratua azkentzea.

Lehehengo atala. Kontratua suntsiaraztea.

47. klausula. Kontratua suntsiaraztea.

47.1 Kontratua suntsiarazteko arrazoiak honako hauek dira:

- Urola Kostako Udal Elkartearekin kontratatzeko baldintzak gerora galtzea.
- Konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea beste edozein prozeduratan.
- Urola Kostako Udal Elkartea eta esleipenduna ados jartzea.
- Esleipendunak kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzeko epeak betetzen berandutzea. Edozein jardueratan, kontratuaren hasierako iraupen-epearen herena baino gehiago atzeratzea klausula-agirian edo kontratuan ezarritako lan-plana, justifikatu gabe, luzapenak barne.
- Urola Kostako Udal Elkarteak ordainketa lau (4) hilabete baino gehiagoz atzeratzea.
- Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.
- Kontratistak behin betiko bermea eguneratzeko betebeharra ez betetzea.
- Kontratua ez formalizatzea.
- Urola Kostako Udal Elkartearen zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenak oztopatzea.
- Kontratua hogei (20) egunetik gorako epean etetea, eta kontratua ez hastea Urola Kostako Udal Elkarteari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.
- Kontratuaren aldaketak, elkarren segidakoak izan arren, baldin eta, banaka edo batera hartuta, kontratuaren prezioaren aldaketak badira, kontratuaren hasierako prezioaren % 20 baino gehiagokoak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita, edo hasierako proiektuaren funtsezko aldaketa badakarte.
- Esleipendunak ez betetzea kontratuaren xedearekin lotuta dauden eta kontratuaren ondorioz ezagutzen dituen datu edo aurrekariei buruzko isilpekotasuna.
- Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratistak soldatarik ez ordaintzea kontratuan parte hartzen ari ziren langileei, edo kontratua gauzatzen ari den bitartean langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontratuaren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, klausula-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian halakotzat jotzen direnak.

47.2 Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoietako bat gertatzen denean, kaltedunak aukera izango du kontratua betetzea edo suntsiaraztea eskatzeko.

Era berean, betetzea aukeratu eta gero ere, suntsiaraztea eskatu ahal izango du, betetzea ezinezkoa denean.

47.3 Kontratua kontratistaren erruz ez betetzeagatik suntsiarazten denean, hark kalte-ordaina eman beharko dio Urola Kostako Udal Elkarteari eragindako kalte-galerengatik, baita prokuradorearen eta defentsa-abokatuaren gastuengatik ere, azken horrek kontratuaren suntsiarazpena erreklamatzeko izan ditzakeen gastuak barne.

47.4 Urola Kostako Udal Elkartearen ez-betetze errudunaren ondoriozko suntsiarazpenaren kasuetan, Udal Elkarteak kalte eta galeren ordaina eman beharko dio kontratistari, baita prokuradorearen eta

defentsa-abokatuaren gastuak ere, azken horrek kontratuaren suntsiarazpena erreklamatzeko izan ditzakeen gastuak barne.

Bigarren atala. Zerbitzuak ematea.

48. klausula. Aurkezteko modua.

Esleipendunak, hala badagokio, kontratuaren xede den lanaren ale osoak aurkeztu beharko ditu, Baldintza Tekniko Partikularren Agirian zehazten direnak, dokumentu eta planoen formatuarekin eta dimentsioarekin, hala badagokio, agiri horretako zehaztapenetan zehazten direnak.

49. klausula. Zerbitzuak ematea eta lanak entregatzea.

Kontratistak ezarritako epearen barruan egin beharko du kontratuaren xedea, eta, hala badagokio, kontratuaren arduradunak aztertu beharko du aurkeztutako dokumentazioa, eta, baldintza teknikoak betetzat jotzen baditu, harrera egitea proposatuko du.

Kontratuaren baldintza teknikoak bete ez direla iritziz gero, idatziz emango dizkio kontratistari antzemandako gabeziak edo akatsak zuzentzeko jarraibide zehatzak, eta idazki horretan jasoko ditu horretarako ezarritako epea eta egokitzat jotzen dituen oharrak.

Kontratistak erreklamaziorik aurkezten badu kontratuaren arduradunak egindako oharren inguruan, kontratuaren arduradunak kontratazio-organoari igorriko dio erreklamazioa, bere txostenarekin batera, eta hark horri buruzko ebazpena emango du.

Kontratistak idatziz erreklamatzen ez badu kontratuaren arduradunaren oharren inguruan, haiekin ados dagoela ulertuko da, eta antzemandako akatsak zuzendu beharko ditu.

49.1 Enpresa kontratistako lan-kontratuko langileei dagokienez:

Zerbitzua ematera atxikitako langileak enpresa kontratistaren mende egongo dira soil-soilik, eta enpresa kontratista horrek bakarrik izango ditu enplegu-emaile izateari datxezkion eskubideak eta betebeharrak. Horretarako, enpresa kontratistak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

49.1.1.- Enpresa kontratistak bakarrik hautatuko ditu kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldeko langileak.

49.1.2.- Enpresa kontratistak ahaleginak egingo ditu lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta taldearen osaeran aldaketak puntualak izan daitezen eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko arrazoi justifikatuak egon daitezen, "erakunde kontratatzaileari" uneoro jakinaraziz.

49.1.3.- Enpresa kontratistak bere gain hartzen du kontratua gauzatzeaz arduratzen den lantaldeko langileei enpresa orori dagokion zuzendaritza-ahalmena modu erreal, eraginkor eta jarraituan erabiltzeko betebeharra. Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzia kasuetan langileak ordeztea, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea barne, hala dagokionean, lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-ahala baliatzea, eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.

49.1.4.- Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren jarduera gauzatzen dutela, agirietan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten eginkizunak gainditu gabe.

49.1.5.- Enpresa kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, bere langile-plantillakoa. Honako betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

a) Enpresa kontratistaren solaskide gisa jardutea "erakunde kontratatzailearen" aurrean, enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen arteko komunikazioa bideratuz, alde batetik, eta "erakunde kontratatzailearen" aurrean, bestetik, kontratua gauzatzearen ondoriozko gaiei dagokienez.
b) Lana banatzea kontratua gauzatzeaz arduratzen diren langileen artean, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.
c) Lantaldeko langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.
d) Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen opor-erregimena antolatzea. Horretarako, kontratista behar bezala koordinatu beharko da "erakunde kontratatzailearekin", zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko.
e) "Erakunde kontratatzaileari" jakinaraztea kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran izandako aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak.

Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea enpresa kontratistarekiko zenbateko solidarioak ordaintzera kondenatzen badute, ordaindutako zenbatekoa jasanaraziko zaio kontratistari, eta, horretarako, erakunde kontratatzaileek egoki eta komenigarri diren ekintza administratibo edo judizialak egingo dituzte, ordaindutako kopuruak guztiz berreskuratu arte.

49.2 Kontratistak lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean dituen betebeharrak: enpresa kontratistak lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta bereziki:

49.2.1.- Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende daudenean, kontratistak lan-ordenantzaren eta dagokion hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu.

49.2.2.- Enpresa kontratistak langileen biziari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

49.2.3.- Era berean, indarrean dagoen araudiak lan-arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako betebeharrak beteko ditu, eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, honako betebehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamenduko modalitate bat hartu izana.
b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean txertatzea, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako laneko arriskuen prebentzio-plan bat ezarriz eta aplikatuz. Eskakizun hori egiaztatutzat joko da OHSAS 18001 arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita izateagatik, betiere sistema horrek eskatutako neurriak betetzen direla ebaluatzen eta egiaztatzen badu. Betebehar hori betetzen dela beste edozein frogabide egokiren bidez ere egiaztatu ahal izango da.
c) Kontratatutako jarduerari dagokion arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.
d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. kapituluan aurreikusitako kontsulta eta parte-hartzea egiteko modua arautzen duen idatzizko prozedura izatea, edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretako aktak.
e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla kontrolatzeko prozedura bat izatea, eta, hala badagokio, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko aurreikusitako diziplina-neurriak hartzea.
f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak behar dituzten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda izatea.
g) Kontratua gauzatzen parte hartzen duten langile guztiek (enpresakoek nahiz kanpokoek) laneratzen direnean arrisku zehatzei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jasota izatea, bai eta beren jarduerari eragiten dioten arriskuei buruzko

beharrezko prestakuntza jasota izatea ere (31/1995 Legearen 18 eta 19. artikuluak, 32/2006 Legea eta 1109/2007 Errege Dekretua), planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilerari buruzko prestakuntza egokia emana izatea.

h) Beharrezkoa den norbera babesteko ekipamendua entregatu izanaren egiaztagiria edukitzea.

i) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, langileen atseden-egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

50. klausula. Harrera eta likidazioa.

Kontratua betetzat joko da kontratistak, kontratuan ezarritakoaren arabera eta Urola Kostako Udal Elkartearen gogara, kontratuaren xede osoa egin duenean.

Aurreko klausulan adierazitako izapideak bete ondoren, eta APKLEOren 204.3 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontratuaren xede den prestazioak dagozkion baldintzak betetzen dituela jotzen bada, haren harrera egingo da.

Harrera- edo adostasun-egintza formal eta positiboa Urola Kostako Udal Elkarteak egingo du kontratuaren xedea entregatu edo egin eta hurrengo hilabetearen barruan.

Berme-epea amaitu arte, esleipendunak kontratuaren xede den prestazioa behar bezala egin izanaren eta bertan dauden akatsen erantzukizuna izango du, eta ez du inguruabar salbueslerik edo eskubiderik emango Urola Kostako Udal Elkarteko ordezkariek prestazioa egin bitartean aztertu edo onartzeak, edo egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan onartzeak.

Kontratistaren prestazioak prestazioaren harrera egiteko beharrezko baldintzak betetzen ez baditu, antzemandako akatsak zuzentzeko eta betebeharrak betetzeko jarraibide egokiak emango dira idatziz, horretarako ezarritako epean, eta ez da haien harrera egingo harik eta jarraibide horiek bete arte.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen edo gabezien ondorioz, egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratazio-organoak prestazioa atzera bota ahal izango du, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Harrera edo adostasuna jaso eta hogeita hamar eguneko epean, hala badagokio, eta kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean, kontratuaren likidazioa kontratistari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, ateratzen den saldoa ordainduko zaio. Hala ere, faktura harrera hori egin den dataren ondoren jasotzen bada, hogeita hamar eguneko epe hori kontratistak dagokion erregistroan behar bezala aurkezten duenetik zenbatuko da, faktura elektronikoaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Likidazio-saldoaren ordainketa berandutzen bada, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan.

51. klausula. Lanen jabetza.

Kontratua gauzatzean egindako azterlan eta dokumentu guztiak, hala badagokio, Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoak izango dira, eta hark kopiatu, argitaratu eta zabaldu ahal izango ditu, osorik edo zati batean, eta lanen egilea den esleipendunak ezingo du horren aurka egin.

Esleipendunak ezin izango ditu kontratu hau gauzatzeko egindako azterlanak eta dokumentuak erabili edo zabaldu, ez osorik, ez partzialki, ez zuzenean, ez laburbilduta, kontratazio-organoaren berariazko baimenik gabe.

Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea helburu duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori Urola Kostako Udal

Elkarteari lagatzea. Nolanahi ere, eta jabetza intelektualeko eskubideen lagapena baztertzen bada ere, dagokion produktua erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie SPKLren 3.1 artikuluan aipatzen diren sektore publikoko ente, organismo eta erakundeei.

Hirugarren atala. Berme-epea

52. klausula. Berme-epea

Berme-epea harreraren edo adostasunaren egunean hasiko da, eta klausula-agiri honen **I. eranskineko 29. atalean** adierazitakoa izango da.

Epe horretan, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan adierazitako kontzeptu aplikagarrien erantzule izango da.

Harrera partzialak badaude, jasotako alderdien berme-epea harrera partzialen datetatik aurrera hasiko da kontatzen.

Berme-epean egiaztatzen bada egindako lanetan akatsak edo gabeziak daudela, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko.

Berme-epea amaitzen bada Urola Kostako Udal Elkarteak aurreko ataletan aipatutako eragozpenik edo salaketarik formalizatu gabe, kontratista egindako prestazioagatiko erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

Zerbitzu-kontratua obra-proiektu bat osorik egitea bada eta akatsak, gabezia teknikoak, errakuntzak edo desbideratzeak daudela egiaztatzen bada, zuzenketa-espedientea irekiko da, SPKLren 314. eta 315. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Kontratistak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharren berri izateko eta entzuna izateko.

53. klausula. Jurisdikzio eskuduna.

Kontratutik eratortzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe daudela ulertuko da.

Hala ere, zerbitzu-kontratua denez, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik ehun mila eurotik gorako balio zenbatetsia balu, **I. eranskineko 4. atalaren** arabera, kontratazioaren arloko errekurtso berezia jarri ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44.2 artikuluan aipatutako erabakien aurka, lege horren hurrengo artikuluetan adierazitako moduan, baldintzetan eta epeetan.

Balio zenbatetsia ehun mila eurotiko beherakoa balu, administrazioarekiko auzierrekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezakezu Udal Elkartearen Lehendakaritzaren aurrean.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezingo da jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

EGINBIDEA.-
Administrazio baldintzen orri hauek Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakaritzak onartu ditu, 2022ko ekainaren 6ko ebazpenaren bidez.

I. ERANSKINA. KARATULA: KONTRATUAREN EZAUGARRIAK.
(IKUS FITXATEGI BEREIZIA)

II. ERANSKINA: KONTRATAZIO-AGIRI EUROPAR BAKARRAREN EREDUA (KAEB).

III. ERANSKINA

(Aukerako aurkezpena)

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALA DELA ZEHAZTEKO DOKUMENTU-EREDUA

Nik, ... jaunak/andreak (NAN zenbakia: .....; helbidea: .....), nire izenean (edo ..... enpresaren izenean; helbidea: .....; IFZ: .....) jarduteko gaitasun juridiko osoa dudalarik, honakoa

ADIERAZTEN DUT

…….. zenbakia duen kontratazio-espedienteko ..... gutun-azalean (adierazi zein gutun-azal aipatzen den) aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, konfidentzialtzat jotzen direla eskaintzaren informazio eta alderdi hauek, sekretu tekniko eta komertzialekin duten lotura dela-eta:

Konfidentzialtasuna honako arrazoi hauek justifikatzen dute:

(Lekua, data eta sinadura)

IV. ERANSKINA

DATU PERTSONALAK TRATATZEKO BAIMENA ETA DATUAK TRATATZEKO KONTRATUA SINATZEKO KONPROMISOA

.....jaunak/andreak, ...NAN zenbakiaren jabeak, helbidea ..... dudalarik, nire izenean, edo ..... enpresaren izenean (helbidea: .....; IFZ: .....), jarduteko gaitasun osoa dudalarik,

ADIERAZTEN DUT

Baimena ematen dudala 2022IKIE0011 kontratazio-espedientean aurkeztutako eskaintzan jasotako datu pertsonalak tratatzeko.

Goian adierazitako kontratazio-espedientearen kontratuaren esleipendun izanez gero, hitz ematen dut, tratamendu-arduradun naizen aldetik, kontratuaren xedea betetzeko behar den datu pertsonalen tratamendurako kontratua sinatu eta beteko dudala.

(Lekua, data eta sinadura)

DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO INFORMAZIOA
Tratamenduaren arduraduna Urola Kostako Udal Elkartea
Helburua: Urola Kostako Udal Elkartearen obra eta zerbitzuen hornidura-kontratuak kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera.
Tratamenduaren legitimazioa: Toki-administrazioari buruzko legeria, entitatearen estatutuak, udal-elkarteko udalek esleitutako eskumenak eta sektore publikoko kontratuen legeria.
Hartzaileak: Kontratazioari dagokion obraren edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik lagako zaizkie datu pertsonalak.
Eskubideak: Datuak atzitzea, zuzentzea eta ezabatzea, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.
Informazio gehigarria: Datu-babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsultatu dezakezu formularioaren amaieran edo gure web-orrian: http://www.urolakosta.eus/eu/web/ingurumena-urolakosta/datuen-babesa

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (2016/679 EB) ezarritakoaren arabera, Urola Kostako Udal Elkartearen hornitzaileak (obra- eta zerbitzu-kontratuak) kudeatzeko eskatutako datuen tratamenduari buruzko informazioa aurkezten dizugu.

Tratamenduaren arduraduna

Urola Kostako Udal Elkartea, IFZ G20392064
Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz, Tel. 943890808
idazkaritza@urolakosta.eus www.urolakosta.eus

Datuen babeserako ordezkariaren kontaktua

dbo@urolakosta.eus

Tratamenduaren helburua

Urola Kostako Udal Elkartearen obra eta zerbitzuen hornidura-kontratuak kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera. Datuen tratamenduak ez dakar berekin erabaki automatizatuak hartzea, ezta profilak sortzea ere.

Gordetzeko epea

Kontratazio-espedientearen esleipena, kontratuaren xede den obra edo zerbitzua (berme-epeak barne) eta/edo horien justifikazio-aldia amaitu arte.

Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa

Toki-administrazioari buruzko legeria, entitatearen estatutuak, udal-elkarteko udalek esleitutako eskumenak eta sektore publikoko kontratuen legeria.

Datuen jatorria

Interesdunak

Datuen kategoria

Tratamendu honetan honako datu-kategoria hauek landuko ditugu: identifikazio-datuak, helbideari eta kontaktuari buruzko datuak, hornitzailearen datuak (besteak beste, langileen datu akademikoak, profesionalak eta kaudimen teknikoari buruzkoak) eta datu ekonomikoak. Ez dira bereziki babestutako datuak tratatzen.

Hartzaileak

Kontratazioari dagokion obraren edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik lagako zaizkie datu pertsonalak. Ez da aurreikusten datu horiek hirugarren herrialdeetara transferitzea.

Pertsonen eskubideak

Interesdunek datuak eskuratu, zuzendu edo, hala badagokio, ezabatu, aurka egin edo tratamendua mugatu dezakete, Datuak Babesteko ordezkariaren bidez. Halaber, interesdunek eskubidea dute Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamatzeko.

.

V. ERANSKINA

2022IKIE0011 ESPEDIENTE-ZENBAKIA DUEN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Lizitatzailearen datuak:

Nik, ..., adinez nagusi eta NAN..... zenbakiaren jabeak (helbidea: .....; tel.: .....; e-maila: .....), nire izenean edo ..... enpresaren ordezkari gisa (IFZ: .....; helbidea: .....; tel.: .....; e-maila: .....) jarduteko gaitasun juridikoa osoa dudalarik,

ADIERAZTEN DUT

- Administrazio-klausula partikularren agiri honen, baldintza teknikoen agiriaren eta kontratu hau arautu behar duen gainerako dokumentazioaren (espediente-kodearen zenbakia: 2022IKIE0011) eduki osoa ezagutzen eta baldintzarik gabe onartzen dudala, eta berariaz neure gain hartu eta ontzat ematen dudala.

- Nire eskaintzan kontuan hartu ditudala fiskalitateari, ingurumenaren babesari, enpleguaren babesari, genero-berdintasunari, lan-baldintzei, laneko arriskuen prebentzioari eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari buruzko indarreko xedapenen ondoriozko betebeharrak, bai eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko eta ingurumena babesteko betebeharra ere.

- Ordezkatzen dudan enpresak kontratu hau egiteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak betetzen dituela, eta kontratua aipatutako agirietan eta honekin batera doan aurrekontu ekonomikoan ezarritako baldintzetan betetzeko eskumena eta baliabide nahikoak dituela.

- Esleipendun suertatuz gero, lanak eskaintzako baldintzen arabera egingo dituela, dagokion prezioan, honako prezioak ezarriz**,** BEZ gabe. Prezioan zerbitzuaren kontzeptu guztiak sartzen direla ulertu behar da:

1 SORTA	**PREZIOA (BEZ gabe)**
Ordu kopurua	
Orduko prezioa	
Exekuzio aurrekontua	
OINARRIA	

2 SORTA	**PREZIOA (BEZ gabe)**
Ordu kopurua	
Orduko prezioa	
Exekuzio aurrekontua	
OINARRIA	

(Lekua, data eta sinadura)

VI. ERANSKINA

A. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ZINPEKO ADIERAZPENA

Lizitatzailearen datuak:

Nik, ..., adinez nagusi eta NAN..... zenbakiaren jabeak (helbidea: .....; tel.: .....; e-maila: .....), nire izenean edo ..... enpresaren ordezkari gisa (IFZ: .....; helbidea: .....; tel.: .....; e-maila: .....) jarduteko gaitasun juridikoa osoa dudalarik,

ADIERAZTEN DUT

1. Goian adierazitako datuak dituen enpresak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan ezarritako betekizunak betetzen dituela, eta araudi horren araberako prebentzio-modalitate bat duela (Prebentzio Zerbitzu Propioa edo Kanpoko Prebentzio Zerbitzua), eta, esleipena eskuratuz gero, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 24. artikuluan eta urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan (24. artikuluan, enpresa-jardueren koordinazioa garatzen da) aurreikusitako koordinazio-neurriak zorrotz betetzeko konpromisoa hartzen duela.
2. Ondorio horietarako, enpresa-jarduerak koordinatzeko eskatzen zaion dokumentazioa igorriko duela jarduera hasi aurretik, eta konpromisoa hartzen duela dokumentazio hori eguneratzeko kontratua indarrean dagoen bitartean.
3. Enpresa-jarduerak koordinatzeko erreferentziazko pertsona honako hau izango da:
    a. Izen-abizenak:
    b. Telefonoa:
    c. E-maila:
4. Lantokiko segurtasun-arauei eta larrialdietan jarduteko jardunbideei buruzko informazioa jaso duela eta kontratazioaren xede diren lanak egiten dituzten langileei informazio hori helarazi diela.

_____(e)n, _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n

IZEN-ABIZENAK	***KARGUA***
SINADURA ETA ZIGILUA *KONTRATATUTAKO ENPRESA*	

B. ENPRESENTZAKO BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN

Baldintza-agiri honen xedea da zerbitzu-kontratu baten bidez Urola Kostako Udal Elkartearen zentroetan edo beste leku batzuetan jarduten duten enpresa kontratista guztiek laneko arriskuen prebentzioaren arloan bete behar dituzten betebeharrak finkatzea.

I. JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA GAUZATZE-FASEAN:

1) Jarduera hasi aurretik, enpresa kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

a) e-coordina plataformaren bidezko koordinazioa kudeatzea. Proposamenean aurkeztutako zinpeko adierazpenean, enpresa esleipendunak pertsona bat izendatzen du enpresa-jarduerak koordinatzeko. Behin kontratua esleituta, pertsona horrek notificaciones@e-coordina.com. helbide elektronikoa jasoko du. Enpresa esleipendunak plataforma horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.
   - Lanak hasi aurretik, eskatutako dokumentazioa aurkeztuko da. Dokumentazio hori lanak hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago aurkeztu beharko da.
   - Eskatzen den dokumenturen bat aurkezten ez bada, lana egingo duten pertsonak ezin izango dira lantokira sartu, ezarritako betebeharrak/baldintzak bete arte.
   - Dokumentazioa kontsultatzeko, deitu 943 89 08 08 zenbakira eta galdetu prebentzio-teknikariari.

b) Koordinazio-bilera, enpresa-jarduerak eta plangintza egoki koordinatzeko.

Izendatutako arduradunak informazioa eta prestakuntza emango die zerbitzua emango duten langileei hartu beharreko arriskuei eta segurtasun-neurriei buruz, eta bere zuzeneko mendeko langileei eta kontratatutako enpresetako langileei dagozkien laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak bete eta betearaziko ditu.
Enpresak eskura jarri beharko ditu lanak behar bezala egiteko beharrezkoak eta egokiak diren ekipo eta bitarteko osagarriak, eta horretarako izendatutako langileek laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza egokia izan beharko dute lanak egiteko.

2) Zerbitzuak gauzatzeko fasean.

Lanak egiten diren biartean, enpresa kontratistaren arduradunak idatziz jakinaraziko dio Urola Kostako Udal Elkarteak izendatutako arduradunari:

1. Kontratak jardueran izandako edozein aldaketa esanguratsu, langileak lanean hastea/kargutik kentzea, zerbitzua ematen ari den bitartean izandako edozein gorabehera. Idazkian jasoko dira aldaketa horrek zer behar sorrarazi dituen segurtasunaren eta osasunaren arloan.
2. Jarduera hasi aurretik aurkeztutako dokumentazioaren edozein eguneratze Urola Kostako Udal Elkarteari helaraziko zaio, hasieran adierazitako moduan (e-mail bidez edo berariazko programa informatikoaren bidez).
3. Kontratako langileek istripuren bat izaten badute, idatziz jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Jakinarazpen-idazkian adieraziko da istripua nola gertatu den, zer lesio izan diren, zergatik gertatu den, eta zer neurri hartu diren horren inguruan.

Aldaketa horiek e-coordina koordinazio-plataforman eguneratuko dira.

II. KONTRATATUTAKO ENPRESEN JARDUNA ZERBITZUA EMAN BITARTEAN.

1. Lanak hasi baino lehen, kontrataren arduradunak, Urola Kostako Udal Elkarteko arduradun izendatuarekin batera, lanak egingo diren eremua bisitatu beharko ditu. Bisita horretan lanen eremua mugatuko da, eta segurtasunagatik mugaketa fisikoa egitea komeni den erabakiko da (hesitzea, itxiturak, barandak, etab).
   Era berean, bisitan, prebentzio-neurriak (seinaleak, sarbide-baimenak, balizak...) eta babes kolektibo eta indibidualeko ekipoak zehaztuko dira, lan-eremuetan sartzeko eta egoteko. Halaber, neurri eta ekipo horien derrigortasuna, maiztasuna, kokapena eta abar zehaztuko dira.

2. Zerbitzua ematen den bitartean zer jarduera ezin diren aldi berean egin zehaztuko dute enpresa kontratistak eta Urola Kostako Udal Elkarteak, eta idatziz jasoko dute bateraezinak diren jarduerak aldi berean egiteko debekua.
3. Enpresa kontratistaren langile guztiek kualifikazio egokia izan beharko dute egingo dituzten lanetarako, eta, hala badagokio, ziurtagiri ofizialak behar bezala eguneratuta izan beharko dituzte, eta Urola Kostako Udal Elkartearentzat egiten duten lanari buruzko prestakuntza eta jarraibide bereziak jaso beharko dituzte, bereziki, laneko segurtasunari eta osasunari dagokienez. Horrela ez baldin bada, langileek ez dute baimenik izango zerbitzuko lanak egiteko.
4. Enpresa kontratistako langileek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko neurriak ez betetzearen ondorioz, lan-agintaritzak Urola Kostako Udal Elkarteari zehapenen bat ezartzen badio, Urola Kostako Udal Elkarteak beretzat gordetzen du enpresa kontratistaren aurka legezko ekintza egokiak egiteko eskubidea.
5. Kontratatutako zerbitzua egitean enpresa kontratistak erabiltzen dituen lan-ekipamendu, babes-baliabide (banakakoak zein kolektiboak) eta material guztiek bete beharko dute lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia, eta Urola Kostako Udal Elkartearen eskura egon beharko dute betetze hori egiaztatzen duten ziurtagiriak.
6. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Urola Kostako Udal Elkartearen kontura lan egiten duten langile guztiek behar bezalako janzkera eramango dute, behar bezala zainduta, garbituta eta txukun.
7. Urola Kostako Udal Elkartearena ez den lantoki batean lan egiten duten langile guztiek lantoki horretara sartzeko berariazko baimena izan beharko dute aldez aurretik.
8. Pertsonek edo instalazioek istripu larriren bat izaten badute, edo unean larritzat edo oso larritzat har daitekeen istripuren bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Enpresa kontratistak istripuaren ikerketari eta proposatutako eta ezarritako neurriei buruzko txostena bidaliko du, gehienez ere 5 eguneko epean.
9. Enpresa kontratistak eguneratuta izan beharko ditu hasieran aurkeztutako agiriak.
10. Enpresa kontratistak ezin izango ditu lanak azpikontratatu Urola Kostako Udal Elkartearen berariazko baimenik gabe. Kasu horretan, azpikontratatutako enpresak edo autonomoen araubideko langileek dokumentu honetako eskakizun berak bete beharko dituzte, eta enpresa kontratista izango da eskakizun horiek eskatzearen eta ez betetzeen erantzule Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean.
11. Urola Kostako Udal Elkartearen ikuskapenak azpikontrata horiei edo autonomoen araubideko pertsonei aplikatu ahal izango zaizkie. Ikuskapen horietan langileei eragin diezaieketen arriskuak detektatzen badira, neurri zuzentzaileak/prebentiboak abian jartzeko jakinaraziko da.
12. Urtero bilera bat egingo da (gutxienez urtean behin) segurtasunaren eta osasunaren arloko gaiei jarraipena eta kontrola egiteko.

Sinatzailea **Firmante**	IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA Izaskun Altuna Mariezkurrena SECRETARIA-INTERVENTORA	
Kodea/Código	Z 22/0076	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA3DC8M.rnyf	
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu / *Este documento se ha firmado electrónicamente, para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR*		